

hh
hik hasi

Iñaki Redin 'Popi'-ri elkarrizketa
Meditazioa eta yoga eskolan
Talde txikiko psikomotrizitate-laguntza
Zein funtzio betetzen du
psikomotrizitateko saioak eskolan?
Urdazubiko leizeak
Iñaki Martiarena "Mattin"



ESKOLA TXIKIAK EKINEAN

EGIPTOMANIA

Edizione 2018/2019



Edizione speciale con il tema dell'Egitto e della cultura egizia.
Tavola da gioco con 100 caselle - 2000 pezzi di gioco
Regole per giocare a questo gioco da tavolo in italiano.

Per saperne di più sui giochi da tavolo visitate il sito www.egiptomania.com



www.egiptomania.com

AURKIBIDEA

GAIA / 10

ESKOLA TXIKIAK EKINEAN

2014ko urtarrilean Francesco Tonucci pedagogoak egindako proposamenaren ildotik, ikasgelak utzi eta tailerren nahiz laborategien bidez funtzionatzen dute Zizurkilgo eta Abaltzisketako Eskola Txikietan. Oinarria da tailer horietan aurkitzen dutena ikasleentzat esanguratsua izatea eta haur bakoitzak bere interesen edo gustuen arabera batetik bestera mugitzeko aukera edukitzea.

ELKARRIZKETA / 18

IÑAKI REDIN 'POPI'

Gaitzak utzi dion arte musikak, marrazketak eta irakaskuntzak erdibitu du Bigarren Hezkuntzako irakasle honen bihotza, familia, lagun eta txakur eta katuez gain. Orain gurgildun aulkian eseririk, larriki gaixo baina gogobiziz, hiru pasioen batuketa bat den liburuaz mintzatu da *hik hasi*-rekin, Katakrakek argitaratu duen *Educar sin drogas (y sin recortes)* liburuaz.

Argitaratzailea: XANGORIN KOOP. ELK. TXIKIA Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 ; www.hikhasi.eus; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.eus; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690.

Erredakzioa: Joxe Mari Auzmendi, Ainhoa Azpiroz, Ainara Gorostitzu, Amaia Mendizabal eta Arantzazu Muñoa.

Erredakzio batzordea: Kontxi Aizarna, Izarne Garmendia, Aritz Larreta, Josi Diarbide, Eider Palmou, Leire Saez, Maite Saenz, Xabier Sarasua, Josu Txapartegi, Alazne Ugartetxea, Arantxa Urbe eta Angel Usobiaga.

Aholkulariak: Ane Ablanedo, Nerea Agirre, Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Alex Barandiaran, Alvaro Beñaran, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Lore Errion-

do, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Joxe Garmendia, Alfredo Hoyuelos, Xabier Isasi, Juanjo Kintela, Irene Lopez-Goñi, Nerea Mendizabal, Karmele Perez Urraza, Matilde Sainz, Nora Salbotx, eta Xabier Tapia.
Administrazioa: Uxue Ugartemendia.
Diseinua: Grafik.

Maketazioa: Xangorin.

Inprimategia: ANtza S.A.L
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak onetsia (2017-09-19).
Kopurua: 3.100 ale.

Hik Hasiko artikuluek edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. Hik Hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorri haiekin.

5 EDITORIALA

Erabakiak, ebidentzietan oinarrituta

6 ALBISTEAK

10 GAI NAGUSIA

Ikasgelarik, arlorik eta mailarik gabe hezten

18 ELKARRIZKETA

IÑAKI REDIN 'POPI'

"Irakasleak kendu dizkigute eta drogak eman"

28 ESPERIENTZIAK

HaziOn egitasmoa. Meditazioa eta yoga, hobeto ikasteko

30 EKARPENAK

Talde txikiko psikomotrizitate-laguntza

34 GALDEIDAZU

ALVARO BEÑARAN

Zein funtzio betetzen du psikomotrizitateko saioak eskolan?

39 ARGITALPENAK

40 PROPOSAMENA

Urdazubiko leizeak. Ur tanta batek egin dezakeena

42 ATZEKO ATETIK

Iñaki Martiarena "Mattin"

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



Gipuzkoako Foru Aldundia

Erabakiak, ebidentzietan oinarrituta

editoriala

DERRIGORREZKO ESKOLA AMAITZEN DUTENEAN GURE IKASLEAK NOLAKOAK IZANGO DIRA? ZER JAKINGO DUTE? ZEIN KONPETENTZIA IZANGO DITUZTE?... ETA ZER ESATEN DIGU ZIENTZIAK GUK LORTU NAHI DUGUN HORREN INGURUAN?



Beste ikasturte bat hasi dugu, eta horrekin batera etorri dira erronka eta asmo berriak hezkuntza-arlor: berrikuntzak txertatu beharra, halako metodologia berritzaile erabiltzeko premia, espazioa berantolatzeko nahia... Izan irakasleek abiatuta, zuzendaritzak aginduta, eskola komunitatearen eskariz edota administrazioak hala erabaki duelako, hamaika proiektu eta egitasmo berritan sartu ohi dira ikastetxeak ikasturtea hastearekin batera.

Gaur egun dauden tendentzia eta heziketa-ildo guztiekin, bada arriskua korrante ezberdinen artean galtzekoa edo kontziente izan gabe eramaten uztekoa, nahiz eta denok ados egon ikastetxeetan egiten dugun praktika pedagogikoak ezin duela izan orain dela gutxi norbaiti bururatu zaion zerbait, ezta modan jarri den azken metodologia ere. Ohikoa bihurtu da azpiegiturak aldatzea, espazioak modu berritzailean diseinatzea, Ipad-ak erabiltzea... Horrek guztiak, ordea, hobekuntza, berrikuntza eta eraldaketa pedagogikoa ekar ditzake, edo ez.

Berrikuntza eta eraldaketa dei dakion, metodologia komun bat erabiliz, eskola komunitate

osoaren artean adostutako eta eraikitako zerbait izan beharko litzatekeela esan ohi da. Orduan bai emango litzaiokeelako ikaskuntza-prozesuari sendotasuna eta trinkotasuna. Horrekin batera, baina, praktika pedagogikoa hobetu dadin, komunitate horrek ados jarri behar luke ikasleen irteera profilarren inguruan: derrigorrezko eskola amaitzen dutenean gure ikasleak nolakoak izango dira? Zer jakingo dute? Zein kompetentzia izango dituzte?... Eta zer esaten digu zientziak guk lortu nahi dugun horren inguruan?

Sendotasun eta trinkotasun horren bila lan egiten saiatuko da *hik hasi* ere, beste ikasturte batez, aldikari honetatik bertatik hasita. Horren lekuko eskola txikietan egiten ari diren proiektu eredu-garriaren inguruko erreportajea, edota umeak metilfenidatoarekin “drogatzearen” gainean Iñaki Redin *Popi* irakasleak elkarrizketa nagusian ematen dituen hamaika datu kezkarri.

Izan dadila, bada, ikasturte hau era bateko zein besteko erabakiak ebidentzietan oinarriturik hartuko diren aroa, eta ez okurrentzietan; gaintontzean, anekdota hutsean geratzeko arriskua izango baitute ustezko eraldaketa, berrikuntza, eta hobekuntza pedagogiko guztiek.

Myriam Nemirovskyren omenez

Uztailaren 28an hil zen Madrilen. Ezaguna da Euskal Herrian “irakurketa eta idazketa” ikuspegi konstruktibistatik hainbat saio eman dituelako:

"Haurrak gauza bera kopiatzen jartzea behin, bitan, hirutan, errespetu falta izugarria da".

Myriam Nemirovsky.



zientzia

azoka

ELIZKOLA
MERCATILIA

Kualitate handikoa, berritasuna,
gaitasuna. 118. 118 urteak
produktuak aldatzen
berrantolatuak dituzte.

Garbitasuna,
profesionalismoa,
segurtasuna eta
erantzukizuna.

Zientzia, Azoka, Eliza,
egituraren elkarrekin.

1904-
1947. A.
Instituzioaren elkarrekin
surreratu
ANIMA
ZARTEZI

antolatzailea

elbuzgar

antolatzailea



antolatzailea



HIZPIDE IZAN DA

Iturria: Berria egunkaria

HEZKUNTZA PUBLIKOA, GABONAK ARTE PROTESTAN



ELA, LAB eta Steilasek sektorekako lau greba egun eta orokor bat iragarri dituzte, Jaurlaritzak "ez dielako erantzun" beraien aldarrikapenei. Hartara, lan arloan, ikasturte berriak ez dio utziko zahar izateari Araba, Bizkai eta Gipuzkoako hezkuntza publikoan. Urtea bukatu arte egingo dituzten protesta ekintzen zerrenda zehaztu du LAB sindikatuko Maider Izagirrek, ELAko eta Steilaseko ordezkariekin batera egindako agerraldian. Besteak beste, sektorekako lau greba egun —azaroan, ostegunero— eta abenduaren 12rako greba orokorra iragarri dituzte. Eta jai edo zubia ez den ostiraletan, elkarretaratzeak egingo dituzte. Bat egitera gonbidatu dituzte ikasle eta familiak.

"Benetako negoziazio prozesu bat" eskatu dio Izagirrek gobernuari. Izan ere, salatu du hiru sindikatuok egindako aldarrikapenei ez diela "benetako erantzunik" eman. Besteak beste, aldaketen zerrendan hezkuntzari dagokion inbertsioaren hazkundea jaso dute. ELAko Xabier Irastorzak argudiatu du eskaera, honako datu hauek emanda: Eusko Jaurlaritzaren inbertsioa BPGaren %3,7 da; Europako Batasuneko batez bestekoa, berriz, %4,9. "Maila horretara iristeko 968 milioi gehiago bideratu beharko lituzke gobernuak. Eta Unescok %6ra arte igotzea gomendatu du".

Langileen behin-behinekotasunari ere erreparatu diote. Batez beste, %40 da hiru herrialde horietakoa hezkuntza publikoan. Baina alde nabarmenak daude sektoreka. Adibidez, irakasleen %38 behin-behineko beharginak dira, eta sukalde eta garbiketan dabilzanen artean, berriz, %63 daude egoera horretan. Gainera, Irastorzak zehaztu du azken arlo horretako langile gehienak 55 urtetik gorakoak direla.

Oraingoan, irakasleentzako proposamena baino ez du egin Hezkuntza Sailak: 3.000 lanpostu, lau urtean, aurtengo lan eskaintza publikoak jasotako 740ak barnean hartuta. "Eskaintza horrekin, lau urte horietan egongo diren erretiroak ere ez dira ordezkatu. Beraz, behin-behinekotasun tasa gaur egungoa edo handiagoa izango litzateke", azaldu du Irastorzak.

ATEAK IREKI DITU SEASKAREN BERNAT ETXEPARE LIZEO BERRIAK; LANBIDE HEZIKETA ERE ESKAINIKO DUTE AURRENEKOZ

300 ikasle hasi dute ikasturtea Seaskaren lizeo berrian. Horietatik 28k arlo profesionalen ikasi ahalko dute, lehen aldiz. Hain zuzen ere, bi arlo profesional abiatu dituzte. Hala, aurtengo ikasturtean eskaintza zabaltzea lortu du Seaskak. Iban Thicoipe Bernat Etxepareko zuzendariaren esanetan, lizeo berria eraikitzea "pausu biziki garrantzitsua da". Alde batetik, eraikuntza mailan, Seaskak hasieratik ezagutu duen inbertsiorik handiena delako, 10 milioi euroko proiektua, hain zuzen; bestetik, berriz, pausu handia delako Lanbide Heziketa irekitzea.

Proiektua hasi zutenetik, duela urtebete baino gehiago, hainbat zailtasun gainditu behar izan ditu Etxepare lizeoko ikas-komunitateak. Thicoiperen hitzetan, oztopo horiek, hasteko eta behin administratiboak izan dira, Hezkuntza Nazionalak ez zituelako bi arlo profesional ireki nahi kopuruak txikiegiak zirela argudiatuta. "Azkenean ofizialki bakarra eskaini dugu, baina Seaskak bere gain hartu du bigarrena irekitzea, inportantea delako eskaintza anitza izatea". Arlo profesionalen zein adar ireki erabakitzerakoan ere zalantzak izan dituzte zuzendariaren arabera. Azkenik, ikerketa bat ireki dute euskararentzat zein sail profesional izan zitezkeen interesgarriak ikertzeko eta horiek in abiatu dute Lanbide Heziketa.



0-3 ADIN TARTEKO FORMAZIOKO HIRUGARREN PROMOZIOA ERE ATERA DA

Hik Hasi egitasmoak 0-3 adin tarteko hezitzaileei zuzenduriko formazio-zikloa antolatzen du, bi urteko iraupenekoa, eta dagoeneko hirugarren promozioak ere bukatu du ibilbidea. Hori ospatzeko, irailaren 16an, bazkaria egin zuten Donostian Hik Hasi komunitateko kideek, formazio-zikloko irakasleek eta ikasleek. Bazkariaren aurretik, ekitaldi laboru batean ikasketak akreditatzen dituzten diplomak banatu zizkieten ikasleei. Besteak beste, Loris Malaguzzi italiarrak eta Emmi Pikler hungariarrak utzitako ikasgaiak jaso dituzte formazio-zikloko parte-hartzaileek.



HH ETA LH-KO IRAKASLEENTZAT GITARRA IKASTAROA XIRULA MIRULAREN ESKUTIK

Ezertxo ere ez dakiten irakasleentzat gitarra ikastaroa antolatu du Xirula Mirulak, bederatzigarren urtez jarraian. Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan aritzen diren irakasleei dago zuzendua. Helburua da ikastaro amaieran eskola-giroko kantuak eta zenbait abesti herrikoi gitarrak laguntzeko gai izatea. Horrexegatik, praktika izango du oinarri ikastaroak.

Urriaren 20an hasita, eskolak ostiraletan izango dira 18:00etatik 19:30era, eta ikastaroa maiatzeko azken astean amaituko da. Donostiako Amara auzoan (Catalina Erauso, 12) izango dira saioak.

Xedea da talde txikia osatzea, zortzi lagun ingurukoa. Beraz, gitarra jotzen ikasteko interesa eta gogoia duenak lehenbailehen eman behar du izena. Ikastaro osoa —materiala barne— 240 euro kostatuko da. Matrikula epea zabalik dago jada. Izena emateko 943 463555 zenbakira deitu (17:00 eta 19:00 bitartean) edo xirula@euskalnet.net helbidera idatzi behar da.

PEDAGOGIA BERDEAREN GAINEAN HITZ EGINGO DU HEIKE FREIREK URRIAREN 20TIK 22RA

Naturarekin harremanean hezteak dakartzan onuren gainean mintzatuko da Heike Freire psikologo eta pedagogoa urriaren Azkoitiko Bizilore eskola aktiboak antolatuta, bertako Abaraxka aterpetxean egingo den jardunaldian. Ikastaroa urriaren 20an, 17:00etan hasiko da eta 22an 16:00etan amaituko da. Informazio gehiago eskuratzeko www.bizilore.eus webgunera jo daiteke.

DAGOENeko ZABALIK DA 2017-2018ko ZIENTZIA AZOKAN IZENA EMATEKO EPEA

12 eta 18 urte bitartean izanez gero, eta ikasturtean zehar ikerketaproiektu bat landu eta 2018ko Bilboko Zientzia Azokan aurkeztu nahi izanez gero, 2-4 lagunekoko taldea osatu eta Elhuyar Zientzia Azokan izena eman besterik ez dago. Irailaren 25az geroztik zabalik da izena emateko epea. Partaideek ikertzaile profesionalen laguntza izango dute. Edozein zailantza izanez gero, zientzia-azoka@elhuyar.eus helbidera idatzi daiteke. Zientzia Azoka 2018ko apirilaren 21ean egingo da Bilboko Plaza Berrian.

HIZPIDE IZANGO DA

HAURRAREN GARAPENAREN GAKOAK IZANGO DIRA HIZPIDE HIK HASI-REN UDAZKENEROKO JARDUNALDIETAN



Urtero bezala, Hik Hasi-k jardunaldiak antolatu ditu udazkenerako, 0-3 urte arteko haurrekin aritzen diren profesionaleri zuzenduta. "Haurraren garapenaren antolatzaileak" izenburupean egingo dira jardunaldiok urriaren 27an Bilbon eta 28an Donostian, bietan goizez bakarrik. Myrtha Chokler psikomotrizista argentinarra eta Pikler pedagogian aditua izango da hizlari nagusia eta haurraren garapenean atxikimenduak, komunikazioak, esplorazioak, jarrera-ziurtasunak eta ordena sinbolikoak zer-nolako garrantzia hartzen duten aztertuko du. Mondragon Unibertsitateko HUHEZI fakultateko Hazitegi iker-taldeko Eider Salegi eta Itziar Arregi ere bertan izango dira haurraren garapenaren antolatzaile horiek egunerokotasunean zer-nolako isla duten erakusteko. Izena emateko epea zabalik dago jada: www.hikhasi.eus webgunean egin daiteke.

REGGIO EMILIARA JOANGO DA IRAKASLE TALDE BAT HIK HASI-REKIN, URRIAN

Hezkuntza-proiektu eta sistema interesgarriak bertatik bertara ezagutzeko asmoz, Hik Hasi egitasmo pedagogikoak hainbat bidaia pedagogiko antolatu ditu urteotan, aurten bertan Finlandian izan da irakasle talde bat hango hezkuntza-sistema ezagutzeko, eta iaz berriz, Estonian. Urriaren 10etik 14ra beste talde bat Italiako Reggio Emiliako hirian garatzen ari diren hezkuntza-proposamen interesgarria ezagutzera joango da. 0-3ko habiak eta 3-6 urte bitartekoen zentroak ezagutzeko aukera izango da. 3-11 urte bitartekoen Loris Malaguzzi eskola ere bisitatuko da.

PSIKOMOTRIZITATE PRAKTIKARI BURUZKO XIII. JARDUNALDIAK EGINGO DIRA AZAROAREN 10ETIK 12RA GASTEIZEN

"Ume zailak? Baina zer-nolako zailtasunei buruz ari gara?" izenburupean Bergarako Luzaro psikomotrizitate elkarteak XIII. Psikomotrizitate Praktikari buruzko jardunaldiak antolatu ditu azaroaren 10, 11 eta 12an, Gasteizko Europa Biltzar Jauregian. Azaroaren 3ra arte irekita dago izena emateko epea. <http://www2.uned.es/ca-bergara/PSICOMO/Escuela.htm> orrialdeko behealdean dagoen fitxa beteta egin daiteke matrikula.

Programari dagokionez, azaroaren 10ean, ostiralez, Ana Sáenzek seme-alabak hezteko irizpideen eta gaur egungo ondoez nagusien gainean hitz egingo du. Hurrengo eguneko jarduna ere hizlari berak abiatuko du, eztabaidagai batekin: hazte-prozesua, autonomia eta mugak. Ondoren, Marta Prieto eta Eva Torres ariko dira. Lehen psikomotrizitate gelaz eta 0-3 urteko hurrez; eta bigarrena, psikomotrizitate gelako istiluen eta zailtasunen gainean. Amaitzeko, igandean, "Zintzoa ala zorionsua izan. Pertsona, eskola, gizarte ereduaren noraezean" izenburupean Jon Arana ariko da lehenik; eta gero, Luispe Gutierrezek "XXI. mendeko Psikomotrizitate Praktika Hezitzailea: eztabaidarako giltza batzuk" izeneko hitzaldia eman- go du. Eta amaitzeko, mahai-ingurua egingo da, hizlarien eta partaideen artean solasean aritzeko.



2014ko urtarrilean Francesco Tonucci pedagogoak egindako proposamenaren ildotik, ikasgelak utzi eta tailerren nahiz laborategien bidez funtzionatzen dute Zizurkilgo eta Abaltzisketako Eskola Txikietan. Oinarria da tailer horietan aurkitzen dutena ikasleentzat esanguratsua izatea eta haur bakoitzak bere interesen edo gustuen arabera batetik bestera mugitzeko aukera edukitzea. Duela hiru urte hasi ziren bidea urratzen eta dagoeneko egia bilakatu zaie hasieran amestu besterik egiten ez zuten hura. Joan den ekainaren 27an aurkeztu zuten azken hiru ikasturteetan 2 eta 12 urte arteko ikasleekin Zizurkilgo San Millan eskolan zein Abaltzisketako Txalburun garatu duten prozesua. Proiektuaren koordinatzaile Elena Laizek, Abaltzisketako irakasle Leire Arreseigorrek eta Zizurkilgo Alaitz Zengotitabengoak kontatutakoak jasotzen dira artikulu honetan.

GAIA: ESKOLA TXIKIAK TAILERRETAN LANEAN

Ikasgelarik, arlorik eta mailarik gabe hezten

2014-2015 ikasturteaz geroztik, eskolak tailer bidez dituzte antolatuta Zizurkilen eta Abaltzisketan: ez dute ikasgelarik, ez dute arlorik, ez dute ordutegi hertsirik eta ez dute mailarik. Eskola bietan bosna irakaslek jarduten dute bi eta hamabi urte arteko 30-32 umerekin, eta bietarako koordinatzaile batekin. Elena Laiz proiektuaren koordinatzaileak azaltzen duen eran, tailerretan hurrei ingurune bat, giro bat eta baliabide batzuk eskaintzen zaizkie, eta beste ororen gaineratik maisu-maistren babesa eta maitasuna dute ikasleek lan egin dezaten: “Haur guztien interesari erantzuten saiatzen gara. Eta sarritan lortu ez arren, lanerako orduan horixe dugu beti ipar. Euren beharrak, euren gustuak, euren interesak... zenbat eta gehiago ezagutu, orduan eta gehiago asmatuko dugu”. Hartara, eskolako ohiko arloak tailer horien bitartez jorratzen dituzte eta saiatzen dira tailer guztietan arlo guztiak lantzeko aukera ematen. Tailer nagusiak ondokoak dira: aroztegia, mugimendua, zientzia, liburutegia eta artea. Eta, kontzeptualki tailer horien barruan lantzen dituzten beste hiru esparru ere badituzte, fisikoki bestelako hiru eremu erabiltzen badituzte ere: baratza, sukaldea eta ‘mugizientzia’ izenekoa.

Egunero, aldi berean, lau bat tailer irekitzen dituzte San Millanen eta Txalburun; eta umeei erabakitzen dute zabalik dagoen zein tailerretara joan, baita zenbat denbora igaro leku eta jarduerari bakoitzean ere. “Eskatzen diegun bakarra



Elena Laiz, Leire Arreseigor eta Alaitz Zengotitabengoa proiektua aurkezten.

da saiatzeko astean bi aldiz tailer guztietatik pasatzen. Baina horretan ere oso malguak gara. Ume batzuek interes handiago dutelako eta ordu gehiago igarotzen dituztelako tailer batzuetan besteetan baino. Bestela ez ginateke predikatzen dugunarekin koherenteak izango”, gaineratzen du Laizek.

Tailer bakoitzak aukera asko ematen ditu eta haurrak euren lanetan, proiektuetan, esperimentuetan, ikerketetan, irakurketetan... zentratu daitezke, bakarka, binaka edota taldean, bakoitza bere modura, eta bere erritmoan. Hala zehazten du proiektuaren koordinatzaileak: “Haurren eskura material eta egoera bizi-biziak jartzen saiatzen gara, bene-benetakoak,

GAIA: TAILERREN BIDEZ LANEAN

Ikasgelarik, arlorik eta mailarik gabe hezten

ume guztien interesei erantzungo dietenak eta euren garapen etapetarako egokiak izango direnak. Orain hasitakoa beste une batean jarrai dezakete haurrek, errepika dezakete, berriro landu, berriro egin, berreskuratu... eta horrela euren burua deskubritzen joaten dira, eta behar dutena garatzen, aseta sentitu arte”.

Forma aldatzeak eta tailerretan antolatuta funtzionatzen has-teak asko lagundu die Zizurkilan eta Abaltzisketan. Dena ez da, ordea, forma. Eta formaren atzean haurren ikuspegia-ren inguruko eta irakaskuntza-jardunaren gaineko filosofia oso bat dute garatua, tailerretan antolatuta lana nola egiten duten azaldu aurretik eskolaren funtzionamendua ulertze-ko oinarritzkoa dena. Aurkezpenean Elena Laizek, Leire Arreseigorrek eta Alaitz Zengotitabengoak egin bezala, San Millan eta Txalburu eskoletako hainbat oinarri filoso-fiko azalduko dira jarraian: haurra, bizitza, maisu-maistren jarduna, adinkako sailkapena, denboraren kontzepzioa, lengoaiak, eta ebaluazioa, hain juxtu.

Haurra. Heziketa etiko eta intelektualerako eskubidea duen pertsona

Zizurkilgo eta Abaltzisketako eskola txikitako irakasleek sinesten dute haurrek, berez, tratu egoki bat jaso badute, errespetuz tratatu badira eta egoera erakargarriak eskain-tzen bazaizkie —zeinetan irakasleek nahiz helduek presio-rik ez dieten egiten—, badaukatela barne-gida bat ekintza bat edo beste egitera bideratuko dituen. “Ekintza horie-tan barne-oreka bat bilatzen saiatuko dira eta oreka hori lortzen duten heinean, seguruago sentituko dira, besteei laguntzeko prest azalduko dira eta horrek eramango ditu beste ekintza bat egitera. Umeei uzten badiegu zertan aritu nahi duten erabakitzen, horretan zenbat denbora igaro nahi duten hautatzen eta nola egingo duten aukeratzen, umeek arduraz jokatuko dute ekintza hori ahalik eta hobekien egin nahiko dutelako. Hala, lehenik ardura hartzen dute beren ekintza horretan, eta handitzen doazen neurrian, inguruko ardura ere hartzen dute”, argitzen du Zengoti-tabengoak.

Edozein kasutan, Zizurkilan eta Abaltzisketan argi dute umeak ez direla heldu txiki batzuk, eta Jean Piagetek esan bezala, helduekin alderatuz gero, garun estruktura ezber-dinak dauzkatela; eta, ondorioz, ez dutela mundua helduek



Bene-benetan egiten dute lan Zizurkilgo San Millan eta Abaltzisketako Txalburu eskoletako ikasleek.

ikusten duten bezala ikusten. “Askotan saiatzen gara guk ikusten dugun hori beraiei ikusarazten eta ezinezkoa da. Era berean, ezinezkoa da jakitea zer dakiten, noraino dakiten. Beraz, egin dezakegun bakarra da haurrei entzutea, hitzaren zentzurik zabalenean”, dio Abaltzisketako maistrak.

Piageten beste oinarri filosofiko batekin ere bat egiten dute Zizurkilgo eta Abaltzisketako eskoletan: heziketa etiko eta intelektualerako eskubidea dutela haurrek. Eskubide horrek ez du esan nahi soilik ezagutza jasotzeko eta ezagutza hori aplikatzeko aukera izan behar dutenik haurrek eskolan, baizik eta horrekin batera adierazi nahi du ikasle horiek etorkizuneko gizarte batean aurrera egiteko gai izango direla, solidarioki, ardurarekin, autonomiarekin jokatzu... eta eskolaren egitekoa dela horretarako guztirako beharrezko estrategia eta mekanismoak eskaintzea. Hala gaineratzen du Zengotitabengoak: “Zentzu horretan, guk uste dugu modu pasiboan jasotako ezagutzak, azken finean, epe motzeko memoria batean geratzen direla; eta, aldiz, eurek euren prozesuak bizitzen badituzte, aurrean dituzten zailtasunei edo oztopoei aurre egiteko gai izango direla, eta epe luzerako memorian geratuko zaiela jasotako guztia eta momentuan bizitako guztia. Gure lan egiteko modua zutarri horren gainean eraiki dugu”.

Zizurkilgo eta Abaltzisketako haurrak bertako eskoletako ikasleak izan aurretik, jaio diren familietako seme-alabak dira, eta hori oso kontuan izaten dute maisu-maistrek, argi baitute euren konfiantza osoa jarri duten gurasoan altxorrik preziatuenarekin dihardutela lanean. Eta badakite neska-mutiko bakoitza, haien familiak bezalaxe, bakarra dela, aparta, singularra, errepika eta konpara ezina. “Guretzat gure ikasleak onenak dira, guzti-guztiak. Bakoitza bere erara, bakoitza bere izaerarekin, bere gustuekin, bere interesekin eta gure errespetu osoa merezi dute. Gure errespetua, gure arreta osoa eta gure maitasun osoa eskola orduetan. Eta merezi dute trataturik apartena, hezkuntzarik bikainena”, dio Laizek. Abaltzisketako maistra Leire Arreseigorrek gaineratzen duenez, berriz, familia bakoitza mundu bat da eta bakoitzak bere sinesmenak, kultura, ohiturak... dauzka, eta umeak horrekin guztiarekin doaz eskolara. Horrexegatik berebiziko garrantzia ematen dio eskolaren eta familien artean harreman sendoa eraikitzeari. “Eskolan beste pentsatzeko eta egiteko modu batzuk topatuz joango dira haurrak, eta taldeko kide sentitzera iritsiko dira, baina umearentzat garrantzitsuena familia izango da beti. Beraz, oso inportantea izango da familiaren eta eskolaren artean garatzen den harremana ona izatea umearen ongizaterako. Konfiantzazko harremana badago, umeak orekatuago, seguruago eta lasaia-

go egongo dira”.

Bizitza. Etxekoaren eta kalekoaren jarraipena eskolan

Zizurkilgo eta Abaltzisketako eskola txikietan konturatu dira haurrak bizi egiten direla eskolan, aldi berean hain sinplea eta hain konplexua den hori. Laizek azaltzen duen eran, bizi dira euren familietan, euren herrian, euren komunitatean, euren nazioan, baina baita euren pentsamenduetan, euren afektuetan, euren emozioetan, euren munduan... eta horrek guztiak osatzen du haurren egunerokoa: “Gure ikasleentzat bizitza ez litzateke zatikatuta egongo, helduok ez bagenie aktibitateetan, ordutegietan, saioetan, eginbeharretan... antolatuko. Kontrara, denbora etenik gabekoa izango litzateke, continuum bat. Eta denbora horretan ezinezkoa izango litzateke ez ikastea. Zergatik? Munduarekin, pertsonekin, animaliekin, naturarekin... etabarrekin erlazioatuko lirakeelako, bizitzaren eta heriotzaren zikloekin, errealtatearekin eta fantasiarekin, nahi eta desioekin eta baita frustrazioekin ere, zalantzekin eta usteekin... galdera garrantzitsuak, filosofikoak egingo lizkiekete euren buruari. Eta erantzun posible horietan murgilduko lirakeke modu librean, era kreatiboan, hipotesiak eginez, gero eta egokiagoak, gero eta zientifikoagoak”.

Horrexegatik, Zengotitabengoak eranstean duen eran, Zizurkilgo eta Abaltzisketako eskola txikiak kanpoko bizitzaren jarraipen bat dira, eta haurrak oso gustura joaten dira eskolara. Goizero irakasleek harrera egiten diete, kontu kontari aritzen dira tartetxo batez, eta, ondoren, tailerretara pasatzen dira. Irakasleen xede nagusia haurrei euren bidean laguntzea da, beren erritmoak errespetatuz, eta ingurune ziur bat eskainiz, non ez diren epaituak edo baztertuak sentituko. Eskolak ikerketa amaiezinak egiteko denbora, aukera eta baliabideak eskain diezaizkiela nahi dute; eta, egunero, eskola garaia bukatzen denean, hurrengo egunean itzultzeko gogoarekin joan daitezela etxera.

Maisu-maistrak. Formatzea bezain garrantzitsua neska-mutikoei entzutea

Laizek, Zengotitabengoak eta Arreseigorrek badakite maisu-maistrak haurren bizitzan oso pertsona garrantzitsuak direla, baina aldi berean kontziente dira eurak ere ez lirakekeela ezer umerik gabe, haurrak baitira haien motorra, pizgarria eta interesa. Euren eskuetan haien seme-alabak utzi dituzten familiei esker direna izan daitezkeela aitortzen dute, eta

hautzaroan eragina duten bakarrak ez diren arren, argi dute irakasleek erantzukizun handia dutela haurren bizitzetan. Beraz, ez dute zalantzarik egiten, gizarteak etengabe eskatzen duen moduan, maisu-maistra onak izan behar dutela. Horrexegatik, adituekin formatzen saiatzen dira, eta gaur egungo ikerketa eta teorien inguruan etengabe hausnartzen dute, euren praktika beti teoria eta ikerketa horiekin alderatuz. Izan ere, Laizek esplikatzen duen moduan, konturatu dira formazioarekin ez dela nahikoa baldin eta formazio hori ez badute alderatzen egunero egiten dutenarekin. Baina ororen gainetik, neska-mutikoei adi-adi entzuten saiatzen dira: “Zentzu guztiekin entzuten diegu, ez bakarrik belarriekin, horrek haurrak hobeto ezagutzeko eta bakoitza bere singularitasunean tratatzeko balio baitigu, eta beraz, bakoitza bere bidean laguntzeko, beraien esperientziatik, ezagutzetatik, gustuetatik eta gogoetatik abiatuz”.

Formazioa, zertarako, ordea? Euren jardunaren egunerokoan dituzten hainbat xederi erantzuteko, hain zuzen. Hainbat helburu zerrendatzen dituzte Zizurkilgo eta Abaltzisketako irakasleek: haurrak goxatzea, mimatzea eta zaintzea; euren sormenerako, behaketarako eta jolaserako une intimoak gordetzea; autonomia sustatzea; pazientziaz jokatzeko eta umeari denbora ematea behar duena egiteko; bakoitzaren ezagutza erritmoa ezagutzea, errespetatzea, bultzatzea eta indartzea; ikasleekin solasean aritzea; eta izaki alfabetizatua eredu izatea, mundua eskolara ekarriz eta eskola mundura irekiz.

Xede horiek guztiak lortzeko bidea egiteak koordinazioa eta adostasuna eskatzen ditu irakasleen artean, iparra ez galtzeko eta denen artean aurrera egiteko. Horretarako, besteak beste, San Millanen eta Txalburun astean behin bi orduko formazio saioa egiten dute, hainbat autorek idatzitako liburuak eta artikulak irakurri, hitzaldiak entzunaz eta dokumentalak ikusiz... eta ondoren jasotakoaren gaineko analisisia eta hausnarketa egiten dute, gero hori euren eguneroko praktikarekin alderatzeko.

Izan ere, Zizurkilgo eta Abaltzisketako egunero egiten dute euren lanaren inguruko analisisia, eta, horretarako, tailer bakoitzean egun bakoitzean gertatzen dena behatu eta horren gainean eguneroko bat idazten dute: “Bertan jasotzen dugun zer ikusi dugun, zer-nolako harremana izan dugun ikasleekin, euren artean nola ibili diren, tailerrean behatu duguna nola interpretatzen dugun, zerbaitek harritu edo ezustean harrapatu ote gaituen... eta jasotako hori gero irakasleen artean partekatzen dugun” zehazten du Zengotitabengoak. Horrez gain, astero-astero beste bilera bat egiten dute irakasleen gainean hitz egiteko. Eta, azkenik, noski, gainerako eskoletan bezala, hiru hilabete behin osatu

beharreko informea dituzte.

Adina bai, mailarik ez

2 urtetik hasi eta 12 urtera arteko haur guztiak elkarrekin ibiltzen dira Zizurkilgo eta Abaltzisketako eskoletan; alegia, adin aniztasun osoa daukate eta horrek haurrentzat dakartzan onuretan erabat sinesten dute: “Aberastasuna baino gehiago altxor bat dela iruditzen zaigu, maisu-maistrok etengabe sormenarekin jarduteko egoeratan jartzen gaituelako batetik, eta bestetik, irakasleen euren artean sekulako harreman oparoak sortzen direla uste dugulako”, azaltzen du Zengotitabengoak.

Argi ikusi dituzte adinak nahasian lan egiteak dakartzan abantailak, eta Zizurkilgo eta Abaltzisketako maisu-maistrek euren buruari galdetzen diote ea zertan oinarrituta, zergatik eta zertarako erabaki ote den haurrak adinka elkartzeko eskoletan, eta ba ote dagoen arrazoi pedagogikoren bat ikasgelak adinka sailkatzeko. Zera argudiatzen du Laizek: “Urte berean jaiotzeak maila berbera edukitzea bermatzen al du? Ikasle bakoitzak aukera gehiago al du bere erritmoan aurrera egiteko denak 3, 9 edo 12 urtekoak direnean? Haurrak ikasteko estimulatuagoak edo motibatuagoak al daude zaharagoen eta aurreratuago daudenen eredurik gabe? Soilik zure adinekoekin jolastea dibertigarriagoa al da? Nortzuk dira gure eredu eta erreferente? Txiki batek ikaskide nagusi bat miresmenez begiratzea ez da al da emozionala? Eta honek ere kontuan hartzea txiki hori, keinu maitagarri edo konplize batekin? Edota biek elkar laguntzea eta elkarrekin ataza konplexu bat egitea? Zilegi al da 10 urtetan zehar rol berbera izatera kondenatua egotea? Ez al da osasungarriagoa batzuetan zaharrena izatea eta besteetan gazteena?”.

Horregatik guztiatik eta beste hainbat arrazoiengatik Laizek, Zengotitabengoak eta Arreseigorrek ez dute ulertzen zergatik eskolak adinka banatzen dituen ikasleak. Euren ametsa da —eta errealitate bihurtzen ari zaie— eskola bat non haurrak 9 edo 10 urtetan bizitzen diren, ikasiz eta ikasiz, zein mailatan dauden jakin gabe, maila bakoitzeko curriculumak ezartzen dituen minimoak eta maximoak jakin gabe, programazio eta denbora berdinekin baldintzatuta sentitu gabe, “programazio eta denbora horiek injustuak direlako berez, ikaslea kontuan hartu gabe diseinatu baitira”.

Adinak nahasian lan egitearen abantaila handietako bat da konparazioak, epaiak eta balorazioak ekiditea. Izan ere, irakasleok esplikatzen dutenez, tailerrean denak batera ari direnez, era askotako emaitzak, bata bestearekin desberdinak eta anitzak lortzen dira. Ez hobeak eta ez okerragoak.

Aurretik ez dagoenez adostuta zer ikasi behar duten adin batean edo zer bestean, ez dagoenez minimorik edo maximorik, ez dagoenez ezarrita gauzak egiteko modu bakarra, ez dago ia haurren arteko alderaketarik. Nahiz eta ez duten oraindik lortu konparazioak erabat desagertzerik, alderaketak eta epaiak desagertzeak ondorio oso onuragarriak ekarriko dizkiela uste dute Zizurkilgo eta Abaltzisketako maisu-maistrek. Hala dio proiektuaren koordinatzaileak: “Uste dut oraindik ez garela erabat jabetzen konparazioak desagertzeak ekar dezakeen guztiaz. Iruditzen zaigu eskolan 10 urtez bizitzea, sailkatuak izan gabe, katalogatuak izan gabe, konparatuak izan gabe, epaituak izan gabe... bakoitzak bere mailan lan eginez, presiorik gabe, emozio handiarekin, adin guztietako ikaskidez inguratuta... erabateko iraultza dela garai hauetan. Baina are eta iraultza handiagoa izango dela helduarorako. Eta horrexegatik, uste dugu guk orain artean ezagutzen dugunaren artean prestaketarik onena ari gaitzaizkiela eskaintzen”.

Denbora. Bakoitzarentzat nahi eta desio duen hori egiteko beta

Haurrak nahi duen horretan denbora “galtzeari” edo “irabazteari” berebiziko garrantzia ematen diote eskola txikiotan, atsedean hartzeko denbora izateari, edo nahi bada, nekatzeko denbora, edo dibertitzekoa, gozatzekoa, erlaxa-

tzekoa, begira egotekoa, itzarotekoa, amets egitekoa, entzutekoa, hitz egitekoa, pentsatzekoa, esperimintatzekoa... Hala adierazten du Laizek: “Denbora izatea nahi dugu nahi dugun bezala bizitzeko, ez agintzen diguten bezala. Izan ere, denborak dimentsio soziala du eta baita dimentsio pertsonala eta subjektiboa ere, norberaren baitan dagoena. Gaur egungo bizitzak gure gizartean behar-beharrezkoak ditu ordutegiak, planifikazioak, denboraren kontrolak, etab. baina haurtzaroen beste era batera ikusten dira gauzak. Haurrentzat ordutegiak gogaikarriak dira, inposatuak dira... Horren aurrean beti protestatzen dute. ‘Jo, itxaron pixkat’, ‘Joe, jolasten jarraitu nahi dugu’, ‘joe, orain ez’... Eta eskolan? Zer gertatzen da? Nola bizitzen da eskolan denbora? Edo denbora falta besterik ez dugu sumatzen? ‘Ez daukagu denborarik’, ‘denbora falta da’, ‘ezin da denbora galdu’... aritzen gara etengabe. Honek guztiak presara eramaten gaitu, ezinbestean, estresera, ezinegonera. Eta eramaten gaitu baita ere haurrak alde batetik bestera bultzatzera eta arrastaka eramatera egoera batetik bestera, eduki batetik bestera, zentzugabekeria batetik bestera. Baina haurtzaroko erritmoak errespetatzea, haur bakoitzaren erritmo berezia errespetatzea gakoa da heziketa orekatua eta lasaia bermatzeko, emozioak kontuan hartzen dituen, adimena eta espiritua. Eta adituek esaten dute, baina gu ere konturatu gara, erritmo desegokiak kaltegarriak direla eta desberdintasuna eta eskusioa baimentzen dutela. Beraz, pertsona bakoitzak behar duen denbora edukitzean jakin beharko genuke. Eta era



Irakurzaletasuna bultzatzea da eskola txikiotan helburuetako bat.

GAIA: TAILERREN BIDEZ LANEAN

Ikasgelarik, arlorik eta mailarik gabe hezten



Haurrek naturarekin gozatzearek garrantzia handia ematen diote Zizurkilen eta Abaltzisketan.

berean, hezkuntza ekintza bakoitzari behar duen denbora ematen. Azken batean, haurtzaroari denbora itzuli behar zaiola uste dugu”.

Lengoiak. Hamaika

Haurren eskubideak biltzen dituen konbentzioko 13. artikulua dio haurrek adierazpen askatasunerako eskubi-dea izango dutela. Alegia, era guztietako informazioa eta ideiak bilatu, jaso eta zabaltzeko askatasuna izango dutela, mugak kontuan hartu gabe, ahoz, idatziz edo inprimatuta, modu artistikoan edo haurrek aukeratutako beste edozein bide baliatuta. Laiz, Zengotitabengoa eta Arreseigor jabetzen dira eskolak bereziki hizkuntzarekin loturiko lengoiak nahiz matematikarekin loturiko adierazpideak bultzatu dituela; sarri, besteak baztertuz. Horren jakitun, Zizurkilen eta Abaltzisketan saiatzen dira ahal bezainbeste lengoia edo adierazpideri lekua egiten, eta tailerretan egiten dituzten proposamenak erakar-garriak izaten haurrak ahalik eta lengoia gehienekin konekta daitezten.

Tailerak. Funtzionamenduaren oinarri

Lengoiak tailerrekin zuzenean lotuta hautematen dituzte Zizurkilgo eta Abaltzisketako eskoletan, lengoia horiek

garatu ahal izateko espazio batzuk behar baitira, baldintza batzuk, denbora batzuk, ekintza batzuk... Laizen, Zengotitabengoaren eta Arreseigorren irudiko, ohiko ikasgelak neutroak, abstraktuak, aseptikoak... izaten dira gehienetan; alegia, bizitzarik gabeak, eta elkarren artean oso antzekoak; altzari berdinak, materialak, baliabideak... eta bertan egiten dena ere berdintsua izan ohi da. Proiektuaren koordinatzaileak ohartarazten duen moduan, haurrek ikasgeletan ordu luzeak ematen dituzte eta denetik egiten dute bertan, baina, maiz, zertan ari diren oso ondo jakin gabe, ekintza bat bestearen atzetik eginez... “Tonuccik esaten duen bezala, bukatu da matematika, hasi da ingelesa, baina umearen burua oraindik agian matematikan dago juxtu bukaeran piztu zaiolako zerbait... eta ingeleseko irakaslea sartzen da, baina umea oraindik akaso ez da jabetu ingelesarekin ari direnik...”.

Hain zuzen ere, San Millanen eta Txalburun lan egiteko modu horri buelta eman nahi izan diote tailerretan antolatutako hezkuntza-sistemaren bidez. Ondokoa da tailer bakoitzaren funtsa:

- Liburutegia: haurrak alfabetatzea da Zizurkilgo eta Abaltzisketako eskola txikien helburu nagusietako bat; alegia, haurrei irakurketa-idazketa prozesuaren jabetuntzan laguntzea. Zengotitabengoak azaldutako eran, egiteko horretan maisu-maistrek oso paper garrantzitsua jokatzen dute,

GAIA: ESKOLA TXIKIAK



Dena dena umeek egiten dute.

funtsezkoa iruditzen baitzaie prozesu horretan irakasleak ere irakurzale eta idazle sentitzea haurrekin batera; hau da, haiekin batera irakurtzea eta haiekin batera idaztea, eta, zailtasunak ere haiekin batera bizitzea eta elkarrekin aurre egitea.

Hortaz, liburutegian ekintza ugari egiten dituzte: irakurketak bakarka, irakurketa partekatuak, isilean, boz gora, testu eta genero askotako irakurketak... “liburuen bertsio onak edukitzen saiatzen gara, gutxienez hiru hizkuntzatan”, argitzen du Zengotitabengoak. Hori irakurketari dagokionez, baina idazketarekin loturiko lanak ere egiten dituzte. Haurrentzat esanguratsuak izan daitezkeen ekintzak bilatzen saiatzen dira idazketa lantzeko. Badute hiru hilean behin argitaratzen duten aldizkari bat, eta aitzakia ederra izan ohi da egindako lanak bertan argitaratzea: albisteak, ipuinak, itzulpenak, biografiak, denborapasak... Iaz martxan jarri zuten beste egitasmo bat ere badute, ‘postaria’ izenekoa. Elkarri mezu positiboak bidaltzeko erabiltzen dute eta sekulako arrakasta izan du. “Umeek zentzua aurkitzen diote ekintza horri, idazteko arrazoi on bat da haientzat. Batzuetan ohar motzak izan ohi dira, beste batzuetan gutun luzeak. Hori ere baliatzen dugu idazteko, testuak hobetzeko eta hizkuntzari buruz hausnartzeko”.

Horrez gain, dokumentalak zein pelikulak ere ikusten dituzte eta ipuinen audioak entzun. Tertuliak edo solasal-

diak ere izaten dituzte, batzuetan aurrez planifikatuak izaten dira, beste batzuetan momentuan sortzen direnak. “Irakurri dutenari buruz komentatzen dute, edo bakoitzak liburu bat hartu eta saio bat antolatzen da, etxean irakurri duten hori edo horretatik gehien gustatu zaiena taldean komentatzeko”.

Astean bitan, irakurketa eskaintzak antolatzen dituzte, helduek haurrei irakur diezaieten eta horiek derrigorrezkoak izaten dira. Garrantzia handia ematen diete Zizurkilan eta Abaltzisketan maisu-maistrek umeei ahoz gora irakurtzeari: “Helduok benetan sentitzen dugun hori umeei transmititzen saiatzen gara. Hiru eskaintza egiten ditugu asteartero eta ostegunero, hizkuntza bakoitzeko —euskara, gaztelania eta ingelesa— bana. Umeei eurek erabakitzen dute zeinetara joan”.

Liburutegi barruan daukate ingeleseko tailerra ere. Ingelesaren kasuan, zentzua eta beharra bilatzea kosta egiten zaiela aitortzen du Zengotitabengoak, baina behintzat hizkuntzarekin atxikimendu positiboa egiten saiatzen direla, kanten bidez, antzerkiaren bidez... eta antzeko ekintza dinamikoaren bidez.

- **Zientzia tailerra:** ikerketarako gunea da, Zizurkilgo eta Abaltzisketako eskoletan benetako ikerketak egiten baitituzte, esanguratsuak eta erakargarriak, dedikazioa, arreta, ahalegina eta sormena eskatzen dutenak. Tailer honen baitan,

GAIA: TAILERREN BIDEZ LANEAN

Ikasgelarik, arlorik eta mailarik gabe hezten

konturatu dira badaudela ekintza batzuk hurrei bereziki gustatzen zaizkienak eta arreta handiarekin egiten dituztenak. Horietako bat baratza da. Arreseigorrek adierazi bezala, umeei izugarri gustatzen zaie lurrearekin ibiltzea, aitzurrean aritzea, uzta biltzea... Eta baratzearekin lotura duen beste ekintza bat ere oso gogoko dute: hazitegia prestatzea, hain zuzen. Loreak eta gero baratzean landuko dituzten haziak ereiten dituzte bertan. “Batzuentzat baratzea beren pasioa da eta seriotasun eta gogo handiarekin joaten dira bertara. Interesgarria izaten da baratzean ikasleen artean zer-nolako harremanak sortzen diren ikustea eta behatzea nola jarduten duten elkarlanean. Kooperaziorako gune aproposa da baratzea eta eurak bakarrik ederki antolatzen eta moldatzen dira”.

Baratzea lantzearekin batera sukaldaritza ere asko gustatzen zaie hurrei, eta lanketa horretarako sukaldea dute bai Zizurkilen eta bai Abaltzisketan. Sukaldean gertatzen diren hainbat prozesu esperimentatzen dituzte bertan: frijitu, egosi, lurrindu, izoztu, urtu... eta manipulatzeko trebetasunak ere garatzen dituzte, askotan moztu egin behar izaten dutelako, txikitu, orea egin, irabiatu... “Beraz, sukaldea bera laborategi zientifiko bat dela esan dezakegu”. Kozinatu ere egiten dute: batzuetan euren plazerez jateko, eta beste batzuetan eskolako ospakizunen baterako edo gurasoentzat. “Beti ez zaie dena ondo ateratzen, baina pixkanaka, saiakera-errorearen bidez, ikasten dute. Azpimarratu nahiko nuke bizitzaren oinarrizko zikloetako bat nabarmentzen dela sukaldean: baratzean hazitako landareak elikagai bihurtzen dira. Eta euren esfortzuekin

lortutako hori prestatzeko eta jateko motibazio handiagoa izaten dute”.

- **Aroztegia:** tailer honetan matematika bizi eta esperimentatu dezakete, baina ez hori bakarrik, sormena lantzeko ere balio handiko espazioa da, ingurukoa irudikatzeko, berria sortzeko... lekua baitaukate umeei. Bi eremu dituzte aroztegian: batetik, “egin eta desegin” gunea deiturikoa, eta bestetik, aroztegiko erremintekin eta benetako egurrarekin aritzeko gunea. Zengotibengoak azaltzen duenez biak daukete lotuta: “Batzuetan ‘egin eta desegin’ gunean aritzen dira denbora luzez simetriarekin jokatzeko, oreka lantzeko, piezen formarekin eta tamainarekin forma desberdinak egiten, eta gero horrek askotan balio izaten die beste gunera joaten direnean eta eraikuntza finkoak egiten hasten direnean gauzak nola egin behar dituzten jakiteko. Egurra manipulatzeko ari direnean ere tarteka joaten dira beste gunera ondo ari ote diren konprobatzera, egur horiek nola lotu behar ote lituzketen ikustera, tamaina berekoak izan behar ote luketen, edo desberdinak izanda ere balio ote duen...”.

Normalki ikasleak euren kasa aritzen dira aroztegian, proiektu pertsonalak nahiz partekatutakoak egiten, baina batzuetan irakasleek ere egiten dizkiete proposamenak, normalki, eskolako beharrezan lotuta: liburutegirako altzariren bat falta dela... baratzeke atea jarri behar dela... eta tarteka erronka txikiak ere botatzen dizkiete ikasleei beraiek egiten ari diren horri etekin handiagoa ateratzeko asmoz: “Ea lortzen duzuen metro eta erdiko eraikuntza bat egitea”, edo “ea lortzen duzuen kanika kurbatik atera gabe joatea”...



Zaharrenek ere aukera paregabeak dituzte.

Benetako erremintekin egiten dute lan, eta neurri batzuk hartzen dituzte haurrek aroztegian aritzeko, baina istripu txikiren bat gertatu den arren, inoiz ez dute ezer larririk izan.

- Mugimendua: San Millango eta Txalburuko maisu-maistrek dioten moduan, bizitza mugimendua da eta mugimendua bizitza, eta haurrak bizitzaz beterik daude: dinamikoak dira, arinak eta espresiboak. Hala dio Arreseigorrak: “Denbora, lekua, giro egokia eta konfiantza ematen badiegu, ikertzeko, probak egiteko... joera izango dute eta sentsazio eta erronka berriak bilatuko dituzte”. Hortaz mugimenduaren tailerrean psikomotrizitatearekin, musikarekin, dantzarekin, antzerkiarekin, jolas sinbolikoarekin, kirolarekin... zerikusia duten ekintzak egiteko aukera izaten dute: “Gozatzen dute adinari erreparatu gabe, bakoitzak bere interesei eta gustuei begiraturaz, bere ahalmenei eta gogoei, bakoitzak bere erara, bere erritmora eta bere estilora”.

Mugimendu-tailerraren barruan txertatuta daukaten beste egitasmo bat “mugizientzia” da. Astean behin behintzat ingurura irteera bat egiten saiatzen dira eta hurrek aukera dute behaketak egiteko. “Inguruan duten guztiak arreta deitzen die umeei: intsektuek, loreek, fruituek, animalia aztarnek... Behaketak egiteko lupak eta prismatikoak eramaten ditugu eta xomorroak eskolako laborategira garraiatzeko ontzi bereziak”. Kanpoan, jolaserako aukera ere izaten dute ikasleek: urarekin, lokatzarekin, harriekin, adarrekin... “Horiek material egituratu gabeak direnez sormenari askoz ere ate gehiago irekitzen dizkiote”. Irteera horietan bizi izandakoa koaderno batean irudikatzen dute gero, idatziz, edo marrazki bidez, edo olerki bat idatziz... “Mugizientzia”-ren barruan egiten duten beste ekintza bat da ikasle guztien etxeetara joatea.

- Artea: Eskolak benetako adierazpen artistikoa bultzatu behar duela uste dute Zizurkilgo eta Abaltzisketako maistrek, eta hori margotzearekin, buztinarekin, pinturarekin, eskulturak egiteko aukerak ematearekin... lotzen dute. Izan ere, sormena bultzatzen duen heziketa eman nahi diete haurrei eta hori ez da arlo bat, ezta teknika bat ere, baizik ere jokabide bat da, umearengan konfiantza edukitzearekin zuzenean loturik dagoena. “Sormenerako eta adierazpenerako gaitasuna guztiok daukagu eta ume denek dute. Baina moztu egiten zaie, saiatzen garelako errealitatean objektuak, pertsonak, istorioak... nolakoak diren erakusten eta marrazkietan islatzen ote dituzten ikusten. Baina lehen esan dugun moduan, umeek era ezberdinean ikusten dute errealitatea. Eta adierazterako orduan ere desberdin adierazten dute. Joka dezagun errespetuz”.

Ebaluazioa. Ikasleak ez, baizik eta hezkuntza-sistema ebaluatuz

Haurrek ez dutela ebaluazio beharrik uste dute Zizurkilgo eta Abaltzisketako maisu-maistrek, ez dagoela ikasleak ebaluatu beharrik haiek ikas dezaten, ezta haiek haz daitezene ere, eta are gutxiago, zoriontsu izan daitezene. Irakasleone esanetan, umeek ez baitituzte ulertzen ez arloak, ez gaitasunak, ez maximoak, ez minimoak, ez errubrikak, ez txantiloak, ez bukaerako aktak... Laizen arabera, ebaluazioa kontrolatzeko tramankulu bat da, baina helduen eta administrazioaren mundukoa: “Neska-mutilak, haziak bezalaxe, bakean utzi behar ditugu. Ez da ona egunero lurra miatzen aritzea, sustraiak behatzeko edo loreari ea pistiloak atera zaizkion ikusteko. Honekin lor dezakegun bakarra da haurraren hazierari trabak jartzea eta garatzeko dituzten aukerak zapuztea. Neska-mutilei, haziei bezalaxe, nahikoa da espazio eta inguru egokiak eskaintzea, baliabide eta egoera egokiak, ahalik eta onenak, denbora ematea eta beraiengan konfiantza edukitzea, babestea eta maitekero zaintzea”.

Maistrak eransten duenez, ebaluazio-probek, edozein eratakoak izanda ere, ez dute apendizaiia bultzatzen, ez dute baloratzen neska-mutilek dakitena, ulertzen dutena, irudikatzen dutena, uste dutena... ezinezkoa irizten baitio haurren ideien mundu mugaezinerari iristeari galdera batzuen bidez, ariketa batzuen bidez, ekintza jakin batzuen bidez... “sarri testuingurutik kanpo daudenak, denentzako berdinak direnak eta askotan zentzurik gabekoak”.

Zizurkilgo eta Abaltzisketako irakasleen aburuz, gehienez ere baloratu daitekeena da zer moduz ari den ikasle bakoitzak bere prozesua egiten, zer moduz sentitzen den eskolan, zein tresna dituen, zer-nolako adierazpenak egiten dituen, nola bizi dituen eskolako orduak... baina balorazio hori ezingo litzateke kanpo proba batzuen edota azterketen bidez egin, baizik eta irakasle guztien behaketa jarraituaren, errespetuzkoaren eta ez-inbaditzailearen bitartez; eta haurraren familia-giroa kontuan hartuz eta ikasleekin eurekin nahiz familiarekin hitz eginez. Azken finean, ikasleei eurei entzunaz eta haiei buruz ahal den guztia ezagutuz.

Izan ere, Laizek, Zengotitabengoak eta Arreseigorrak uste dute ikasleak ez liratekeela ebaluatu behar, baina bai ebaluatu behar litzatekeela hezkuntza-sistema bera, hezkuntzan parte hartzen duten helduek (maisu-maistrak, aholkulariak...) egiten dituzten proiektuak, prestatzen dituzten baliabideak... eta bereziki heldu horiek eskolari buruz dituzten ideia filosofiko eta pedagogikoak, haurtzaroari buruzkoak eta ikas-irakats prozesuei buruzkoak.



“Irakasleak kendu dizkigute eta drogak eman. Gogorra da, baina horrela da”

ELKARRIZKETA: ~ IÑAKI REDIN 'POPI'

BIGARREN HEZKUNTZAKO IRAKASLEA

Gaitzak utzi dion arte musikak, marrazketak eta irakaskuntzak erdibitu du Iñaki Redin *Popiren* (Iruñea, 1964) bihotza, familia, lagun eta txakur eta katuez gain. Biologian lizentziatua eta Bioteknologian masterra, Barañaingo institutuko Zientzia irakaslea izan da oraintsu arte. Duela bi urte *Para Educar Comocreando* liburua argitaratu zuen. Orain gurpildun aulkian

eseririk, larriki gaixo baina gogobiziz, hiru pasioen batuketa bat den liburuaz mintzatu da *hik hasi*-rekin, Katakrakek argitaratu duen *Educar sin drogas (y sin recortes)* liburuaz. "Nik badakit zertaz mintzo naizen; musikak salbatu ninduen, rock izar bat izan nahi nuen eta zaindu egin nintzen, bestela auskalo non nengokeen".

Gordina da *Educar sin drogas* liburuan egiten duzun erretratua: haur eta nerabeak alkohol, tabako, metilfenidato eta kalamu artean dantzan darabilzkigu. Nola heldu gara honaino?

Murrizketen bidez. Hezkuntzan egin dituzten murrizketek eraman gaituzte egoera honetara: eskubide konstituzionalak kentzen ari gatzazkie haurrei, heziketarako eskubidea da horietako bat, eta heziketaren ordezkak ematen dizkiegu. Irakasleak kendu dizkigute eta drogak eman. Gogorra da, baina horrela da. Zergatik gertatu da? AEBetako hezkuntza-sistema hartu dugulako eredu gisa. Nik AEBetako eredu espaziala kopiatuko nuke, baina hezkuntza- eta osasun-sistema publikoak inondik inora ere ez. Baina AEBetako hezkuntza-sistema kopiatu dugu merkeena delako. Eredu onak nahi baditugu, kopiatu ditzagun funtzionatzen dutela bada-kigun eredu horiek. Kontua da kalitatezko hezkuntza eskaintzen duten eredu horiek garestiak direla, ikasle gutxiko gelak aurreikusten dituztelako. Hemen aldiz, ratioa handitzen eta handitzen eta handitzen ari gara, hori da krudelena. Irakasle batek nola eskainiko die 35 ikasleri behar duten arreta? Murrizketek eragin zuzena dute hezkuntzan: Irakaskuntza zuzeneko ordu kopurua handitzen ari gara, eta irakasle kopurua murrizten... Zer geratzen zaigu murrizteko? Ikaslegoa. 35 ikasleko gela batean 5 ikasle anulatzen baditugu metilfenidatoarekin, 30 ikaslerekin egingo dugu lan, eta ustezko hezkuntza-helburuak betetzea errazago izango zaigu. Bada haur horiei heziketa eman beharrean beste zerbaite emango diegu: pilula bat eta PMAR Ikaskuntza eta Errendimendua Hobetzeko Programa baterako helbide bat.

Metilfenidatoa edo mph-a, anfeta bat baino kaineroagoa den droga horren sarrera murrizketekin erabat lotua dago: lehen dibertsifikazioak egiten genituen, gelak bitan banatzen, laguntza eskolak eman, curriculumak egokitzen, behar berezietako laguntzaileak genituen... orain pastillak ditugu.

Nola sortu da liburu hau idazteko beharra? Zeintzuk dira irakasle batek egunerokoan ikasgelan, drogekin loturik, aurre egin beharreko arazoak?

Nik egunerokoan ikusten dudana errealitateak sortzen da liburuan. Hezkuntza-sisteman lau droga daude zabaldua, gizartearen isla gisa. Tabakoa, alkohola, kalamua eta metilfenidatoa dira lau droga horiek, eta bakoitzak bere berezitasuna dauka. Tabakoaren, alkoholaren eta kalamuaren kasuan, gurasoona da erantzukizuna, gauza asko egin baikenitzake gure seme-alabek edan eta erre ez zezaten. Baina horrez gain, metilfenidatoa sartu digute, sistemaren heziketa beharrak beteko dituen droga delako.

Alkohola droga-zubia da, beste guztietara eramaten gaituen droga delako. Gizartearen guztiz zabaldua dagoen droga da.

Kalamua oso droga desmotibazioa da. Kalamuak sortzen duen desmotibazioa ikaragarria da, kalamua erretzen duen gazteak zeharo aldatzen du bere bizimodua, horretara bakarrik dago, eta lelotu egiten du. Uste dut denok dugula kalamua erretzen duen ikaslearen perfil bat buruan. Badu azalpen zientifiko bat: oxigeno faltak eragiten du neuronak *stand by*-n geratzea. Bestalde, tabakoa da hilko zaituen droga. Azkenean jendea konturatu da porru baten arriskua tabakoan dagoela. Jendea ez da haxixaren mende erortzen, tabakoaren mende baizik.

Azkenik, metilfenidatoa dugu, irakaslearen ordezkoa den droga. Gaur egun 5.000 haur inguru ari dira metilfenidatoa hartzen Nafarroan, ikaragarria da. Ez daude 5.000 haur amigdalitisarekin, edo txorkatila bihurturik... 5.000 haur baleude beste edozein gaixotasunekin epidemiatzat hartuko genuke eta honez gero guztiok eskuak burura eraman eta kalera irten ginen, baina metilfenidatoarekin ez da halakorik gertatzen.

Nola sortu zen liburuaren galdetzen didazu, bada liburuaren honen atzean gaiaz hitz egiteko beharra dago. Liburuaren lau komikiz osatua dago, ikasleekin lan egiteko. Web orritik bereizmen handian deskargatu daitezke komikiak [Popik *Comocreando* bloga

kudeatzen eta elikatzen du eta liburu honetako materialaz gain, hainbat ikaslerekin drogen prebentzioaren inguruan egin zuen komikiko lanak ikus eta deskarga daitezke], tamaina handian fotokopiatu eta ikasgelan erabili ahal izateko. Gainerakoa, irakasle eta gurasoentzako materiala da, baina baita ikasleentzat ere. Hor azaltzen dut droga bakoitzak ezaugarri nagusi bat duela.

Liburuaren erruaz hitz eginaz hasten duzu, "irakurle, lagun, kide, neba, ikasle... baina batez ere guraso maitea... zurea da erruaren zati handi bat". Gurasoak aipatu dituzu, baina administrazioa eta irakasleak ere ez dira drogek ikasle-bizitzetan hainbesteko pisua izatearen erantzule? Nortzuk dira errudunak?

Errua guztiona da. Gurasoak badugu erruaren zati bat, hori gerta dadin onartzen dugulako. Oso erraza izan liteke psikologoa antzarak ferratzera bidaltzea, baina esaten badizu zure seme-alabari TDAH diagnostikatu diotelako eta pastilla emanez gero, azterketak egiteko ordu erdi bat gehiago izango duela... bada hasten zara espekulatzen eta irensten duzu amua.

Politikarien errua ere bada, ez baitira ezertaz enteratu. Hondaturik dagoen merkantzia erosi dute. AEBetako ereduak kopiatu dute, merkea delako. Eta sistema publikoan sinisten ez duen jendea jarri du hezkuntza publikoan zuzentzen. Horra arazoaren muina: azeria jarri dute oiloak zaintzen.

Irakasleok ere badugu errua, noski. Ez dugu egoeraren kontzientzia hartzen, ez dugu erreakzionatzen, ez gara batzen, ez dugu kolektibo gisa jokatzeko. Eta zeintzuk daude institutu askotako zuzendaritzan? Gaitasun handiena dutenak edo etekin pertsonala bilatzen dutenak? Askok eta askok ez dute klaustroak deitzeko lana hartzen, gertakizun hauen aurrean zer jarrerara hartu erabakitzeke.

Arrazoi batengatik edo besterengatik, guraso eta irakasle askok onartu egiten dute haurrari anfetaminak ematea. Zuk diozu ordu erdi gehiago izango duela azterketetan, eta



titulua emango diotela ikasketen amaieran, baina zer etorkizun du hainbat urtetan metilfenidatoa hartu duen haur horrek?

Izugarria. Metilfenidatoak eragiten dituen kalteek ez dute atzera bueltarik, iraunkorrak dira, eta oso garbi ikusten dira eskaner batean. Ustez borrokatu nahi duen gaitz hori sortzen du metilfenidatoak. Pastillak hartzen 8-10 urte daramatzaten haurrak badira Nafarroan, eta inork ez du esaten nola dauden, ez zer gertatuko zaien, ezta tratamendua noiz bukatzen den ere. Guraso batzuek espekulatzen dute: azterketa garaian ematen diote seme-alabari, eta gero kentzen diote...

Erru banaketa honetan ez ditzagun medikuak ahaztu. Hiru alditan idatzi dut Nafarroako Medikuen Kolegioa, gai honetaz galdetzeko, irakasle askoren kezka azaldu diet, haurtzaroaren ezaugarri berezkoak —mugitzea, arreta orain bai orain ez jartzea, oihu egitea, asperduragatik kexatzea...— patologizatzen ari garela; salatu diet Snap VI testa, TDAHren diagnostiko tresna bakarra benetan eskasa, makurra eta baliogabea dela, beti positibo emateko prestaturik dagoela... eta jaso dudana erantzuna izan da horretan ari direla. Bitartean milaka paziente ditugu jada. Alegia, horretan ari dira eta aldi berean diagnostika-

tzen ari dira, haurrei pastilla gogorrak ematen. Inori bururatuko al litzaioke 4 urteko haur bat goizero koñak kopa bat edanda bidaltzea eskolara? Edo matematikako azterketa gaindi dezan whisky bat ematea? Ez ezta? Baina *speed*-a emanda bidaltzen ditugu. Medikuek kexatzen dira pribatuan baina jarraitzen dute errezeta ematen. Liburu hau dela-eta, mediku batzuk armairutik ateratzen hasi dira, eta ezin dela horrela jarraitu esaten... ikusiko dugu.

Bada, metilfenidatoa gailentzeko eta beraz haurren hezkuntzarekin ez eze osasun mentalekin jolasteko arrazoia zein da, batzuentzat negozio itzela dela?

Simplea bezain larria da. Eta negozio horretan ez ditzagun ahaztu psikiatra eta psikologoak. Denetik dago, noski, esan beharrik ez dago, baina psikiatra eta psikologo asko negozioa egiten ari dira horren kontura. Opus Dei inguruko psikologo eta psikiatra asko negozio itzela egiten ari dira Nafarroan TDAHrekin, sekulako etekina ematen dielako. Dirutza mugitzen ari da. Pentsa, Nafarroan TDAHko hiru elkarte daude! Zergatik? Diru asko-asko dagoelako tartean. Eta Nafarroako Gobernuaren dirua jasotzen dute elkarte horiek. Eta negozio horri erantsi behar zaio substantzia beraren

“Metilfenidatoa, anfeta bat baino kaineroagoa den droga honen sarrera, murrizketekin erabat lotua dago”

“5.000 haur baleude beste edozein gaixotasunekin epidemiatzat hartuko genuke eta honez gero guztiok eskuak burura eraman eta kalera irten ginen, baina metilfenidatoarekin ez da halakorik gertatzen”

“Ikaragarria da nola diagnostikatzen den TDAH. Haur batek ikasketekiko interesik azaltzen ez duelako, mugitua delako, arreta jartzen ez duelako... edo dena delakoagatik hezkuntza-sisteman enkajutzen ez duenean gaitz fiktizio hau pairatzeko hautagai bihurtzen da”



salmenta, farmazeutiken negozioia...

Ikaragarria da nola diagnostikatzen den TDAH. Haur batek ikasketekiko interesik azaltzen ez duelako, mugitua delako, arreta jartzen ez duelako... edo dena delakoagatik hezkuntza-sisteman enkajutzen ez duenean gaitz fiktizio hau pairatzeko hautagai bihurtzen da. Normalki irakasleak edo zentroko psikologoak bultzaturik, baina kasu batzuetan gurasoek bideraturik, gaizki itzulitako test guztiz subjektibo bat erantzuten dute irakasleak eta gurasoek, eta horren batezbestekoaren arabera, inolako azterketa genetiko edo biokimikorik gabe, ez eskaner, ez erradiografia ez ezer, medikuak erabakitzen du mph-a eman ala ez.

Nire lagun bat alabarekin joan zen psikiatrarengana, euren arteko harreman txarra zela medio, eta TDAHko diagnostikoarekin atera ziren... Hezkuntza-arduradunen ezjakintasunagatik eta utzikeriagatik, edo eurek jakingo duten interesagatik, beste batzuen negozioagatik eta gurasoon arduragabekeriagatik edo ezintasunagatik, abioneta batetik pilulak botatzen ari dira; hori da gaur egun daukagu irudia.

Ikasleen artean bereizketa sor litekeela esan duzu: batzuk heziketa jasotzen ari dira eta besteak pilulak. Pilulak jasotzen dituztenak, hezkuntza-eskubidea ukatzen zaienak, soziologikoki egoera baztertuagoe-tan daudenak dira? Lotura hori egin daiteke?

TDAHk oso bilakaera bitxia izan du. Hasieran haur aberatsen gaixotasun bat zen, gutxiengo etnikoetan ez zegoen TDAHrik, baina gaur egun kode genetikoan ez baizik eta posta kodean dagoen gaixotasun bat da. Non bizi zaren, libratuko zara edo tokatuko zaizu. Frantzian libratuko zara, Espainian ez, Europako iparraldeko herrialdeetan ez da gaitz hau existitzen, AEBetako mendebaldeko kostaldean ekialdekoan baino gutxiago...

Orain eta gurean, denbora pasa ahal, gaitza zabaltzen ari da, etorkinen seme-alabetara ere zabaltzen ari da. Eta lehen mutilen gaitza zen, testimoniala zen nesken artean TDAHa zutenen kopurua, eta orain ez... Baina harago doa zabalkundea: orain hainbat psikiatra gurasoen arteko diagnostikoa bultzatzen ari da, bada familia osoa joaten da diagnostika-

tzera eta pastillekin irteten da. Zientzia fikzioa ematen du baina horrela da. Gaur egun ikasle asko unibertsi-tateko lehen urteetan diagnostikatzen dituzte, edo Batxilergoko bigarren urtean... Lehen, diagnostikoa Lehen Hezkuntzan egiten zen, eta Bigarren Hezkuntzara sintomekin etortzen ziren, baina sintoma horiek ez dira errealak, pilulek eurek eragindako sintomak baitira. Orain asko ari da zabaltzen gaixoen abanikoa, ume-umetatik gurasoetara ari da zabaltzen diagnostikoa, eta beraz, batzuen negozioia.

Gelan izan ditut, Bigarren Hezkuntzan 8 urte medikatuta zeramatzen haurrak, irakasleak lau urterekin bideratu zuelako pastillak hartzera. Zer egiten du gaizki lau urteko ume batek *speed*-a emateko? Galde diezaiogun, mesedez, geure buruari: nola eman diezaiokegu *speed*-a lau urteko haur bati? Nafarroan lau urtez azpiko 20 ume daude metilfenidatoa hartzen.

Bakanak dira, gutxi batzuk, baina badira irakasle batzuk lan mardula egiten ari direnak gaitza diagnostikatzen, arkatzak zorroztu eta haurrak markatzea gustatuko balitzaie bezala. Nik neuk ikusi dut, nire seme bate-

kin. Andereñoak, irakasleok, kontura gaitzen, mesedez, daukagun ardura-rekin!

Lotura estua egiten duzu liburuan drogen kontsumoaren eta hezkuntza-sistemaren kalitatearen artean. Zuk diozunez hezkuntza-sistema zaharkitua dago, curriculumak ez ditu haurren eta bereziki nerabeen interesak eta beharrak asetzen, nerabeari ez zaio ezer interesgarririk eskaintzen ikasgelan, beraz, bestelako interesguneak bilatzen ditu, sistemak ostera dio “gaur egungo nerabeak desmotibaturik daudela”. Galileo hilobitik aterako bagenu klaseak ematen jar genezake. Eskola ez da aldatu, ez da berritu! Izarrarteko bidaiak ikusteko aukera duen belaunaldiari planu inklinatuz eta poleaz hitz egiten diogu ikasgelan, XIX. mendean bageunde bezala. Ezin du horrela izan! Gure neska-mutilei ez zaie eskolan esaten diegun ia ezer interesatzen zaila delako ikasgaiaren eta euren errealitatearen arteko lotura aurkitzea, aldiz ikasi egin behar dute, norbaitek esan duelako eurentzat garrantzitsua dela ez-dakit-zer jakitea.

Aisialdiaren kalitate txarrak droga kontsumora eramán zaitzakeen bezala, curriculumarekiko eta ikasgelan gertatzen denarekiko desinteresak gainbehera dakarkio eskolari. Ikasleak zirikatatu behar ditugu, argitxoak piztu haiengan, interesa piztu, motibazioa elikatu... Bigarren Hezkuntzara irits daitezzen zer ikasi nahi duten jakinda. Aldiz, harrigarria da, baina zientziak edo letrak ikasi nahi duten ez dakiten ikasleak iristen zaizkigu. Ez dakite zer nahi duten, ez dakite zer interesatzen zaien ere, eta gu, irakasleok, ez gara haiengan gutxieneko motibazioa sortzeko gai.

Zer gertatzen da curriculumarekin? Nork jarri du? Zergatik ez da ukitzen? Zergatik ez da berritzen, gaurkotzen? Nori interesatzen zaio ez ukitzea? Kontuan izan behar dugu erabakitzen duen jendeak zer-nolako irakaskuntza-sistema nahi duen, jende honek nahi duen irakaskuntza ez da ezagutzan oinarrituriko irakaskuntza, eurek ikastetxe pribatuak harremanak egiteko leku gisa ikusten dituzte, etorkizuneko negoziok eta

familiak ixteko harreman gune gisa ulertzen dituzte ikastetxe pribatuak, eta eskola publikoak, aldiz, utziak dituzte erabat... Hori da kopiatu dugun hezkuntza-sistema eskasa.

Irakaskuntza publikoak beste zerbaít izan behar luke. Eskola publikoko ikasle goa ikasle go erreala da, gizarteak duena, eta hori da onartu behar duguna. Hezkuntza igogailu sozial gisa erabili behar dugu, alegia, edozein dela zure jatorria eskala sozialean igotzeko aukera emango dizun tresna. Askatasun eremua izan behar du, eta eskolatik kanpo gertatzen denaren isla. Eskolatik kanpo gertatzen den horretan ibiltzeko prestatzen gara eskolan, gaitasunak hartzen ditugu mundu errealean ibiltzeko.

Drogez gain, hezkuntzaz ere asko hausnartzen duzu liburuan: “Erabat galduta dauden gazte multzo batek partekatzen duen espazio fisikoa da ikasgela. Helduak, hezitzaileak deituak, haiek bezain galduta daude”. Irakaslearen prestakuntzak ere izango du honetan zerikusirik, ezta? Bigarren Hezkuntzako irakasleok norbere gaia menperatzen duzue, baina enpatiaz, psikologiaz, haurren garapenez, zer dakizue? Prestatuta zaudete horretarako?

Denetarik dago, batzuk trebeagoak dira bestetuk baino. Teorian Gaitasun Pedagogikoen Agiria dugu, baina agiri horrek zenbat gaitasun ematen dizkizun majo eztabaidatuko nuke nik!

Berrikuntza beharrezkoa da, irakasle on artean ere motibazioari eustea. Gure lanaz hausnartzea: nik esaterako, komentatu izan dut zeinen interesgarria litzatekeen irakasleok bestean klaseetan sartzea, ikusteko irakasle bakoitzak nola egiten duen lan. Oso baliagarria izango litzateke, irakaslerik txarrenak ere baduelako zerbaít interesgarri erakusteko. Baina horretarako beharko genuke hori bultzatuko luketen zuzendariak eduki institutueta, eta ez da horrela, bereari begiratzen dioten zuzendari gehiegi ditugu.

Hezkuntza-sisteman eman den aldaketa —aldaketa deitzeak ere lotsa ematen dit— engainu bat izan da. Esan digute: hauxe da alda-

“Hiru alditan idatzi dut Nafarroako Medikuen Kolegiora, gai honetaz galdetzeko, irakasle askoren kezka azaldu diet, haurtzaroaren ezaugarri berezkoak —mugitzea, arreta orain bai orain ez jartzea, oihu egitea, asperduragatik kexatzea...— patologizatzen ari garela; salatu diet Snap VI testa, TDAHren diagnostiko tresna bakarra benetan eskasa eta baliogabea dela, beti positibo emateko prestatua dagoela... eta jaso dudan erantzuna izan da horretan ari direla”

“Nire zeregina, irakasle gisa, ez da ez edateko esatea, baizik eta edateak ekar ditzakeen ondorioak azaltzea. Tabernariak edo gameluak esaten ez dizuna esatea”

tzea. Hizkuntz-eredu ezberdinak eta diapositiben proiektorea erabiltzea. Ingelesa eta power pointa. Horrekin XXI. mendean gaudela sinestarazi digute.

Ados, egoera gordina da. Zer egin daiteke?

Zail dago kontua. Hasteko, begiak ireki eta medikatzeari utzi behar dio-gu. Lehenbailehen. Drogek bukatuko dute hezkuntzarekin, ikaslerik ez izateak. Bestalde, puskatu ditugun edo puskatzen ari garen ikasle horiek konpondu beharko ditugu.

Izan ere, AEBetatik kopiatu dugun hezkuntza-eredua merkea dela esan duzu, baina koste soziala oso garestia izango da... hau da, 15 urtez anfetaminak hartu dituen pertsona batek, edo bizi guztian hartu beharko dituenak kostu handia ekarriko dio Gizarte Segurantzari... gaurko merkealdiak ez ote du biharko garestitzea ekarriko?

Jakina, ikasle horiek trastornoak izango dituzte. AEBetan tiroak jotzen dituzte ikasleek, hemen ikusiko dugu zer egiten duten... Burmuinarekin jolasteak ondorioak ditu. Oso ergela izan behar da pentsatzeko zure seme-alabari 4 urtetik aurrera droga bat emateak ez diola sistema nerbio-soan kalterik egingo. Gazte horrek

mendekotasuna izango du, elbarritasun bat izango du eta aitortu beharko zaio, ordaindu... *Speed*-ak suizidiorako joera sortzen du, adibidez. Oso beheraino eramaten zaitu. Ba al dakigu zenbat ikasle suizidatzen diren gaur egun? Nerabeen heriotzen artean zenbat diren suizidioen ondorio? Geldi gaitezen, pentsa dezagun, erreakziona dezagun.

Nola prebenitu daiteke?

Ikasgelan oso zaila da, alkoholaz eta tabakoaz hitz egin dezakezu ikasleekin, baina TDAHri buruz hitz egitea gurasoak bere seme-alabari ematen dion droga bati buruz hitz egitea da.

Hitz egin dezagun, bada, tabakoaz eta alkoholaz, azken batean tabakoa heriotzera eramango gaituen droga dela esan duzu. Aldiz, helduok sarri ez dugu droga bezala ikusten eta etxean kontsumitzen dugu alkoholarekin batera, seme-alaben aurrean. Hipokrita da gero haiei ez kontsumitzeko esatea?

Nerabeek erre eta edaten dute gure biologia sozialean dagoelako, ongi ikusia dagoelako eta geuk bultzatzen ditugulako, gu ikusten gaituztelako. Haatik, ez zaigu gustatzen gure seme-alabek edatea edo erretzea, eta ez diegu tabernetan sartzen uzten,

hortaz, non edaten dute gazteek? Erdigunetik urrutiko eremuetan, poligonoetan egoten uzten diegu, hantxe izan daitezke nor. Horretarako, hobe da tabernan sartzen uztea.

Gobernuen hipokresia ere hor atzean dago: nola joko du Gobernuak alkoholaren eta tabakoaren kontra, bere sostengu iturria badira? Gobernu bera da alkoholzalea, nikotina zalea, zerga eta etekin horien mende dagoelako, eta beraz, berak bultzatzen du negozioa. Pentsa, alkoholaren etiketa kendu die ardoa eta garagardoari, eta orain elikagaiak dira! Eta gaur egungo katedralak bodegak dira. Gobernuarentzat zein da alkoholak ekar dezakeen arazo bakarra? Trafiko istripuak. Alkohola emakumeen aurkako indarkeri kasuen eta bortxaketen %90ean presente egotea ez da arazo. Ez du kanpainarik egin esateko: "Edaten baduzu, ez jo zure emaztea". Alhokolarekin eta tabakoarekin dugun jarrera benetan hipokrita da.

Tabakoa da osagaiak ezagutu gabe komertzializatzea onartzen den produktu bakarra munduan. Formula etengabe aldatzen ari da, gero eta mendekotasun handiagoa sortzen du, gero eta hilgarriagoa da, baina guk ez dakigu argi zerez osatua dagoen.



Barneratua daukagu gazteek “pasa beharreko fasea” dela alkohola eta tabakoa kontsumitzea. Normalizatu egi daukagu gazteek edatea eta erretzea?

Nire zeregina, irakasle gisa, ez da ez edateko esatea, baizik eta edateak ekar ditzakeen ondorioak azaltzea. Tabernariak edo gameluak esaten ez dizuna esatea. Edaten baduzu, apustu ergelak egin ditzakezu, droga kaltegarriagoak hartzeko gogoia sortu ahal dizu... Edaten baduzu, informazio zaituz. Edan baduzue, asko edan baduzue, ez utzi bakarrik gaizki ikusten duzun lagun hori; oso gaizki ikusten baduzu, deitu larrialdietara... Hori da liburuaren funtsa. Informazioak indartsuago egiten zaitu drogaren aurrean. Hori gakoa da. Drogak hor daude, eragin hau daukate, eta ondorioz kontuz ibili.

Liburuaren atal garrantzitsua batean, droga bakoitzaren errealitatea azaltzen dut. Nolako gozamina eragiten dute droga horiek hartzailearengan? Benetan hainbesteko ala da? Merezki al du zorabio pixka bat sentitzea horren hilkorra den tabakoa bezalako substantzia bat hartzearen truke? Merezki al du Marokotik ez dakit zeinen ipurtzuloan etorri den hori kontsumitzeak zorabio tonto batengatik? Merezki al du prezio hori ordaintzea?

Nik beste hezitzaileen aurrean dudana abantaila da mota guztietako drogak hartu ditudala, ezagutzen ditut oso ondo, badakit zein diren haien efektuak, badakit zertaz ari naizen. Psikiatra horiek *speed* marra bat hartuko balute, seguruenik kontu handiagoz ibiliko ziren errezeta emateko.

Ikasgelan bultzatzen litekeen prebentzio-neurri gisa, kalitatezko aisialdia eskaintzearen garrantziaz hitz egiten duzu liburuan. Zer lotura du kalitatezko aisialdiak drogen kontsumoarekin?

Aisialdia funtsezkoa da. Haurrei kalitatezko aisialdia eskaini behar zaie, eta hori ikasgelatik egin daiteke. Nik ikasle bati Higgen bosoia azaltzarekin batera gaiarekin lotutako hiru pelikula ikusteko gomendioa ematen badiot, aisialdirako ideiak ematen

ari naiz eta, era berean, bere jakinmina sustatzen eta elikatzen. Hori da heziketa: neska-mutilei euren kabuz pentsatzen irakastea; kuriositatea eta jakiteko eta ezagutzeko gogoia duten pertsonak egitea, motibatzea. Gure eginbeharra da.

Gurasoei ere esango nieke euren seme-alaben aisialdia zaintzeko. Mendia, kirola, antzerkia, musika... euren interesak elikatzeke, eta ahal dela denbora elkarrekin pasatzeko, berdintza patata tortila lehiaketak egitea edo irakurtzea, baina neska-mutilek ongi pasatzea garrantzitsua da, ongi sentitzea. Adin hauetan, aspertzea, noraeza, inongo parte eta kide ez sentitzea, lekuri ez edukitzea, hobetzeko perspektibarik gabe aspertzea oso arriskutsua da.

Bestalde, hezkuntza irakaslearengan fokalizatu beharra dago, balioa eman behar diogu irakasleari, gaur egun ez baitu balio duenaren pareko preziorik. Hutsaren hurrengo gara, orduak jartzen dizkigute artzaintza orduak balira bezala eta ez lan eraginkorreko orduak. Alde horretatik, gaur egungo Nafarroako Gobernua aurrekoarekiko kontinuitate izan da. Ez du kendu TDAHren diagnostikoa dakarren protokoloa, zeina patetikoa den, eta kendu egin beharko luke.

Gizartean sumatzen da arazoa? Konturatzen gara haurrak tabakora, alkoholera eta kalamura bultzatzeak eta bereziki metilfenidatoa errezeptatzeak zer ondorio dituen?

Jendeak ez du sinesten, lehenik eta behin. Jendeak ez du sinesten Nafarroan 5.000 ikasletik gora —dagoeneko oso-oso gora— droguak daudenik, eta Euskal Komunitate Autonomoan ere datuak oso berdintsuak dira. Neure lankide batzuek ere ez dute sinesten. Eta gurasoen artean, denetarik dago. Guraso batzuei ondo iruditzen zaie. Pasa beharreko gaitz bat bezala ikusten dute, barizela bezala. Nahiago dute guraso bezala gauzak gaizki egin dituztela onartu baino, euren seme-alabak gaixotasun bat duela eta medikatu egin behar dutela —hori baita hitza, medikatu— pentsatzea. Eta zer esan politikariez?

“Gelan izan ditut, Bigarren Hezkuntzan 8 urte medikatuta zeramatzen haurrak, irakasleak lau urterekin bideratu zuelako pastillak hartzera. Zer egiten du gaizki lau urteko ume batek *speed*-a emateko? Galde diezaiozun, mesedez, geure buruari: nola eman diezaiokegu *speed*-a lau urteko haur bati? Nafarroan lau urtez azpiko 20 ume daude metilfenidatoa hartzen”

“Jendeak ez du sinesten Nafarroan 5.000 ikasletik gora —dagoeneko oso-oso gora— droguak daudenik, eta Euskal Komunitate Autonomoan ere datuak oso berdintsuak dira”

ESPERIENTZIAK

HaziOn EGITASMOA

Meditazioa eta yoga, hobeto ikasteko

Ikastetxeetako irakasle, zaintzaile eta begiraleei kontentplazio-teknikak –meditazioa eta yoga– irakastea da HaziOn egitasmoaren xedea, gero haiek ikasleekin praktikan jar ditzaten. Herritar taldetxo batek Hernanin abiatu zuen proiektua duela bi ikasturte; baina pixkanaka inguruko beste hainbat herritara ere zabaltzen ari dira.

Irakasleei zein ikasleei bizitza osorako baliagarria izango zaien erreminta bat eskaintzeko asmoz HaziOn egitasmoa sortu dute Hernaniko herritar batzuek. Herriko ikastetxeetako irakasleak eta begiraleak izan ditu proiektuak abiapuntu, haiei yogan eta meditazio-tekniketan trebatzeko aukera eskaini baitzaie. Trebakuntza jaso ondoren, praktikan jarri dituzte tresna horiek eskolako eguneroko jardunean ariketa erraz, dinamiko eta sinpleen bidez. Marijo Arrieta proiektuaren sortzaileetako batek dioen moduan, helburua da irakasleak eta begiraleak konturatzearnasa erabiliz eta teknika txiki batzuen bidez eurak nahiz ikasleak lasaitzea lortu dezaketela eta guztien kontzentrazioa eta arreta handitzea:



Argazkian HaziOn egitasmoa kideak ageri dira: Marijo Arrieta, Regina Brückner, Lierni Telleria, eta Iosune Eizmendi.

“Azken urte hauetan, Mendebaldean, garapenak denbora eta espazioaren kontzeptuak aldatu dizkigu: gizarte interkonektatu batean bizi gara, gizarte konplexu batean. Ondorioz, denbora gutxian gauza asko ikasi behar izaten ditugu. Haurrek, esaterako, prozesatzeko estimulu gehiago dituzte egun. Horregatik, gero eta zailagoa egiten zaie zentratzea, arreta ardaztea eta erabakiak hartzea. Desoreka horiek leuntzera bideratu dugu

HaziOn egitasmoa”.

Hernaniko herritar talde batek sortutako BiziOn egitasmoaren barruan egindako bigarren ekimena da HaziOn. BiziBusa izan zen lehena: goizero eskolara bizikletaz joateko proiektua, 204. *hik hasi* aldizkarian jaso zena. Hain zuzen ere, izenak berak iradokitzen duen moduan, ondo bizitzera hurbiltzeko proposamena da BiziOn. Osasunarentzat eta naturarentzat kaltegarriak diren praktikez



hausnartu, eta, kalte horiek leundu nahian, osasuntsuak zein jasangarriak diren ohiturak sustatzea eta lantzea du jomuga. “Azken finean sortutako egitasmo honen helburu nagusia da herritarrok geure buruaren eta ingurugiroaren zaintzan aurrerapausoak ematea. Garapenarekin batera ingurugiroari, eta hortaz, geure buruari kalte egiten dioten praktikak barnerratu ditugu. Gure bizi-ohiturak aldatuz doaz: azkar jaten dugu, gutxi lo egin, autoz gehiegi ibiltzen gara, teknologia berrien erabilera desorekatua egiten dugu, natura kutsatzen ari gara, gehiegi kontsumitzen dugu... Zerbitzuak, ondasunak, segurtasuna eta denbora libre a gure lorpenak dira, baina horiek neurritasunez eta sen onez kudeatzea da oraintxe bertan gure jendarteak eskuartean duen erronka nagusia. Eta horixe da BiziOn proiektuaren abiapuntua ere”, argitzen du Arrietak. Eta hala jarraitzen du: “Bizitzen ari gareneri buruzko hausnarketa egin beharrean gaude. Izan ere, denok argi daukagu arazo global honi erantzun egin behar diogula. Eta, horregatik, gure ingurune hurbilenetik hasita, pauso txikiak eman nahi ditugu BiziOnetik. Nolabait, hitzetatik ekintzetara jauzi egin nahi dugu”.

Hala, 2015eko udaberrian BiziBu-

sa proiektua martxan jarri ostean, 2016an HaziOn proiektuarekin hasi ziren yoga ikastetxeetara eramateko. Hernaniko ikastetxeetako irakasleentzat trebakuntzarako eta praktikorako zazpi saio egin zituzten bi ordukoak, yogako adituek gidatuta. Hernaniko bost ikastetxeetatik lauk hartu zuten parte hasiera hartan (bosgarrena plangintza arazoak tarteko geratu zen kanpoan, baina 2017ko udaberrian parte hartzeko nahia azaldu zuen), eta, zehazki Haur Hezkuntzatik hasi eta Bigarren Hezkuntzara aritzen diren 57 irakaslek. Bi programazio banatu zizkieten klaseratzeko: bata paperean eta bestea multimediarik; hiru ataletan banatutako ariketa ugariarekin. 2016ko udazkenean, berriz, herriko hiru ikastetxetako 26 begiralek jaso zuten formazioa. Bi programazio banatu zizkieten jangela-orduan praktikan jarri ahal izateko; bata HHkoentzat eta bestea LHkoentzat; lasaitzeko, esnatzeko eta orekatzeko ariketekin.

Irakasleekin zein begiraleekin egin duten formazioa teoriko-praktikoa izan da. Yoga zer den euren azalean bizi izan dute eta gero ikasleekin klasean egiteko moduko zenbait ariketa ezagutu dituzte: arnasketak, luzaketak, meditazioa... Eskolaren hasieran, bazkalorduan, jolasor-

du ondoren... erabili ahal izateko moduko jarduerak dira, lasaitzeko, kontzentratzeko, arreta lantzeko... balio dutenak.

Ikasturte honetan, gainera, irakasle eta begiraleei lagundu eta aholkatzeaz gain, zuzenean ikastetxean haurrekin saioak egingo dituzte HaziOn-eko kideek ikasgelan bertan, irakasleentzat eredu izan daitezen, eta aurrera begira, hezitzaileek errazago aplikatu ditzaten yogako eta meditazioari tailerrak ikasleekin. Gelan bertan egiten dituzte ariketak, aulkian eserita edota mahaiaren alboan zutik, bizpahiru minutuz. Eta gelako aldarrean, soseguan, arretan, giroan, harremanetan... argi antzematen dute onura bai irakasle zein begiraleek eta baita ikasleek euren ere. “Orain arte jaso ditugun informazioak eta proiektuak izan duen balorazioa oso ona da. Garbi ikusi dugu batzuetan ekintza txikiarekin asko lor daitekeela”.

Eta, horregatik, orain, Hernanin ez ezik, inguruko herrietako beste ikastetxe batzuetan ere hasiak dira proiektua garatzen, eta zabalik daude izan ditzaketen gainerako eskakizunetara ere. HaziOn-eko kideekin kontaktuan jartzeko **hazion@bizion.eus**-helbidera idatzi behar da edota **687841628** telefono zenbakira deitu.

EKARPENAK

IRUNGO TXINGUDI IKASTOLA

Talde txikiko psikomotrizitate-laguntza

Artikulu honetan, eskola testuinguruan, hau da, eskola egutegian zein ordutegian, psikomotrizitate-laguntzaren inguruan garrantzen ari diren esperientzia baten berri eman nahi genuke. Irungo Txingudi ikastolako esperientzia da, hain zuzen, aurkeztuko duguna. Ezagutu eta zabaldu beharreko esperientzia dela uste dugu, haurren aniztasunari erantzuteko baliabide pedagogiko ezin aproposagoak iruditzen baitzaizkigu psikomotrizitate-laguntzako saioak. Beraz, lasai asko esan genezake aspaldi hasi zirela Txingudi ikastolan arreta goiztiarrear esku hartzen.



**Mariaje Arrastua
eta Aritz Larreta**

Irakasleak eta
psikomotrizistak

Irungo Txingudi ikastolak urte asko daramatza psikomotrizitate-praktikari lotuta, 35 urtetik gora, zehazki. Mariaje Uranga izan zen psikomotrizitate-praktika Txingudi ikastolara ekarri zuena. Garai hartan, Lehen Hezkuntzako 1. mailan zebilen Uranga tutore lanean, eta bazituen gelan gainerakoek bezainbat aurrera egiten ez zuten ikasleak. Kezkatuta zebilen. Ikastolako psikologoarengana joan zen aholku eske, eta psikomotrizitate-ikastaro bat proposatu zion hark. Hala, 1980ko udan, Bartzelonaraino joan zen psikomotrizitate-ikastaro hura egitera, betiere, aurreratu ezinik zebiltzan ikasle haiekin asmatu ahal izateko jarraibide batzuk jasotzeko esperantzan. Han ezagutu zituen, besteak beste, Andre eta Anne Lapierre aita-alabak eta Bernard Aucouturier. Hurrengo ikasturtean bertan, tutore lana uztea eta psikomotrizista gisa hastea proposatu zioten. Urangak baietza eman, eta buru-belarri hasi zen zeregin horretan.

Esan bezala, Andre eta Anne Lapierre aita-alabekin zein Bernard Aucouturierekin aritzeko aukera izan zuen, baina gehiago gustatu zitzaion Aucouturierren egoteko eta egiteko modua, eta harekin jarraitu zuen.



Antza, Aucouturier urtero joaten zen Bartzelonara garai hartan, astebeteko ikastaro bat eskaintzera. Han izaten omen zen Uranga ere urtero-urtero, Aucouturierrengandik zer ikasiko. Eta ez hori bakarrik: bere maletatxoa hartuta, Tourseraino ere joaten omen zen bakar-bakarrik. Han, Aucouturierrekin astebeteko egonaldia egin, eta bueltan lanera.

Gerora, Aucouturierrek berak 3 urteko iraupena zuen prestakuntza-ikastaro bat antolatu zuen Madrilen, eta prestakuntza haren parte izan zen Uranga ere; Urangaz gain, ordea, hantxe prestatu zen Margarita Aresti ere, gerora, beste hainbatekin batera, Luzaro psikomotrizitate-eskolaren sortzaileetako bat izango zena. Uztailan soilik izaten omen zen prestakuntza, baina uztail osoa irauten zuen, uztailaren 1etik 31ra, batere jaiegunik gabe, goizetik gauera.

Prestakuntza ikastolan bertan

Prestatu ahala, haurrekin esku hartzen hasi zen Uranga, baina baita ikastolan bertan lankideak prestatzen ere. Hilean behin elkartzen ziren, eta prestakuntza teoriko, praktikoa zein pertsonala egiten zuten. Beraz, ikastolan bertan, ASEFOPeK proposatzen duen prestakuntza-eredu bera

eskaintzen zien Urangak lankideei.

Poliki-poliki, Urangaz gain, Haur Hezkuntzako irakasleak ere psikomotrizitate-saioak egiten hasi ziren. Talde erdia hartu, beste erdia ondoko gelako irakaslearekin utzi, eta psikomotrizitate-saioa egiten zuten.

Psikomotrizitate-praktika gaur egun

Gaur egun, psikomotrizitate-praktika da Txingudi ikastolako hezkuntza-proiektuaren ardatzetako bat. Horrela, Haur Hezkuntzaren etapako esparru guztietan eragiten du, hala nola ordutegietan, antolaketan...

3-4 urterekin hasten dute Txingudiko ikasleek euren eskola-ibilbidea. Bada, psikomotrizitate-gelatik bertatik ekiten diote eskola-ibilbide horri, psikomotrizitate-gelan bertan hasten baitute egokitzapen-prozesua. Beraz, jolas libreak eragiten duen plazeraren gainean eraikitzen da ikastolarekiko eta tutorearekiko atxikimendua. Horrela antolatzen dute Txingudi ikastolan 3-4 urtekoen egokitzapen-prozesua:

- 1. Uztaila:** iraileko egokitzapen-prozesuari buruzko informazio zehatza bidaltzen zaie familiei.
- 2. Iraileko lehen astea:** gurasoak saio guztian daude haurrekin.

“3-4 urterekin hasten dute Txingudiko ikasleek euren eskola-ibilbidea. Bada, psikomotrizitate-gelatik bertatik ekiten diote eskola-ibilbide horri, psikomotrizitate-gelan bertan hasten baitute egokitzapen-prozesua. Beraz, jolas libreak eragiten duen plazeraren gainean eraikitzen da ikastolarekiko eta tutorearekiko atxikimendua”

“Haur Hezkuntzako 4 urteko haurrekin hasten dira konbentzioz laguntza-saioak egiten. Dena den, eta egiari zor, esan daiteke Haur Hezkuntzako 3 urtetik hasten dela esku-hartze goiztiarra: alde batetik, laguntza beharko luketen haurrak identifikatzen dituzte, hala, Haur Hezkuntza 4an laguntza-saioetara bideratu ahal izateko; bestalde, une horretan ezinegonen bat duen haurren bat balego (gurasoen banaketa, anaia-arrebaren baten jaiotza...) tutoreak berarekin eramaten du psikomotrizitate-saioetara, nahiz eta saio horiek, berez, laguntzakoak ez izan”

- 14:30-16:00 eta 16:30-18:00.
- Saio erdia, psikomotrizitate-gelan; beste erdia, euren gelan.
- Lortu nahi da hurrek ikastola gurasoen bidez ezagut dezatela.

3. Iraileko bigarren astea: gurasorik gabe.

- Ikasle taldea bitan banatu: 14:30-16:00 eta 16:30-18:00

4. Iraileko laugarren astea:

- Talde osoa elkarrekin, baina goizez bakarrik.
- Jangela-zerbitzua aukeran.

5. Iraileko laugarren astetik aurrera:

- Talde osoa elkarrekin, goizez eta arratsalde: 8:45-12:00 eta 13:55-16:45.

Egokitzapen-aldia amaitutakoan, laugarren astetik aurrera, alegia, ohiko ordutegiarekin hasten dira, eta hortik aurrera ere sekulako garrantzia izango du psikomotrizitate-praktikak Haur Hezkuntza osoan.

Ezer baino lehen, esan behar da lau psikomotrizitate-gela dituzte-la Txingudi ikastolan, eta horrek ahalbidetzen duela Haur Hezkuntzan psikomotrizitateari horrenbesteko denbora-tartea eskaini ahal izatea. Indar eta baliabide asko jartzen dituzte, beraz, psikomotrizitateari dagokionez, eta, nahiz eta ikastolak Haur Hezkuntzan 4 lerro izan, psikomotrizitate-saio asko egiteko aukera dute; saio asko eta, gainera, talde erdiarekin bakarrik. Ez dakigu baden Euskal Herri osoan antzeko beste esperientziarik! Ez dugu uste! Antolakuntza pedagogikoari begiratze hutsarekin, begi-bistakoa da Txingudi ikastolan pisu handia duela aniztasunaren arreta goiztiarrak.

Psikomotrizitate-saioei dagokienez, bi esku-hartze mota egiten dituzte:

- Heziketaren eta prebentzioaren esparruetako psikomotrizitate-saioak (talde erdia).
- Heziketaren eta prebentzioaren esparruetako psikomotrizitate-laguntzako saioak (talde txikiak).

Heziketaren eta prebentzioaren esparruetako psikomotrizitate-saioak (talde erdia)

Haur Hezkuntzako 3. mailakoek ordu eta erdiko bi psikomotrizitate-saio izaten dituzte astean. Tutorearekin egiten dituzte saioak (prestakuntzarik ez badu, prestakuntza egina duen beste irakasleren batekin). Tutorea (edo prestakuntza duen irakaslea) talde erdiarekin joaten denez saiora, astean lau aldiz joaten da psikomotrizitate-saioa. Hala, gelan behar gehixeago duen haurren bat izanez gero, lau aldiz ere eraman dezake helduak berarekin. Eta zer egiten dute beste talde erdiarekin? Hizkuntza indartzeko saioak egiten dituzte. Horretarako dago, besteak beste, psikomotrizitate-laguntzako saioen arduraduna. Haur Hezkuntzako 3. mailako bi tutore saiora aldi berean joaten direnez (bakoitza psikomotrizitate-gela batera), psikomotrizitate-saioa joan ez diren bi talde erdiekin bat osatzen dute, eta laguntza-saioen arduradunarekin egoten dira gelan.

Haur Hezkuntzako 4.goek eta Haur Hezkuntzako 5.goek astean saio bakarra izaten dute, baina tutorea bi aldiz joaten da talde erdiarekin. Psikomotrizitate-saioa ez doazen beste bi talde erdiak beste irakasle batek hartzen ditu Haur Hezkuntza 4an, eta Musikako irakasleak, berriz, Haur Hezkuntza 5ean.

Heziketaren eta prebentzioaren esparruetako psikomotrizitate-laguntzako saioak (talde txikiak)

Haur Hezkuntzako 4.go haurrekin hasten dira konbentzioz laguntza-saioak egiten. Dena den, eta egiari zor, esan daiteke Haur Hezkuntzako 3.etik hasten dela esku-hartze goiztiarra: alde batetik, laguntza beharko luketen haurrak identifikatzen dituzte, hala, Haur Hezkuntzako 4. mailan laguntza-saioetara bideratu ahal izateko; bestalde, une horretan ezinegonen bat duen haurren bat balego (gurasoen banaketa, anaia edo arrebaren baten jaiotza...), tutoreak berarekin eramaten du psikomotrizitate-saioetara, nahiz eta saio horiek, berez, laguntzakoak ez izan.

Laguntza-saioak tutorea ez den beste irakasle batek egiten ditu. Garai batean, Mariaje Urangak egiten zuen lana; gaur egun, beste Mariaje batek egiten du, Mariaje Arrastuak, hain



zuzen. Ez da komeni tutorea eta laguntza-saioak egingo dituen irakaslea pertsona bera izatea; izan ere, talde handiarekin (talde erdia bakarrik bada ere) egiten den esku-hartzea eta laguntzako talde txikiarekin egiten dena ez dira berdinak. Jarrera-sistema bai, hori berbera da, baina, psikomotrizistak haurren jolasean duen inplikazioari dagokionez, aldeak daude. Laguntza-saioetan, esaterako, haurren produkzioak manipula daitezke; talde handiarekin egiten diren saioetan ez, normalean behintzat.

Ikasturte amaieran erabakitzen dute Haur Hezkuntzako 3. urtea egin duten haurretatik zeinek jasoko duen psikomotrizitate-laguntzako saioa Haur Hezkuntzako 4. urtean.

Taldekatzeak

Laguntza behar duen haurra astero joaten da laguntza-saioa, hau da, BETI.

Laguntza-saioa behar duen haurra bere gelako lauzpabost gelakiderek joaten da saioa. Beraz, Txingudi ikastolan behintzat, EZ DAGO LAGUNTZA BEHAR DUTEN HAURREZ SOILIK OSATUTAKO

LAGUNTZA-TALDERIK. BERAZ, GUZTIZ INKLUSIBOAK DIREN SAIOAK BERMATZEN DIRA.

Laguntza behar duen haurren ikastaldea lautan zatitzen dute, eta laguntza behar duen haurra hiru astez segidan gelako taldetxo berarekin joaten da laguntza-saioetara.

Hiru saio egindakoan, hau da, hiru aste pasatutakoan, laguntza behar duen haurrak taldetxoz aldatzen du, eta beste taldetxo batekin joaten da laguntza-saioa, beste gelakide batzuekin.

Horrela, ikasturte osoan zehar, taldetxo bakoitzak hiru txanda edo bederatzi aste egiten ditu gutxi gorabehera, laguntza-saioetan.

Ondorioak

Artikulu hau idazten hasteko motibazioa Txingudi ikastolan egiten duten talde txikiko psikomotrizitate-laguntzaren berri ematea zen. Dena den, artikulua idazten ari ginen bitartean, konturatu gara talde txikiko laguntza-saioak ez ezik, psikomotrizitate-saio guztiak ere arreta goiztiarraren zerbitzura daudela. Hartara, heziketaren eta prebentzioaren esparruetan egiten

den guztia da arreta goiztiarra. Gaur egun, zorionez, eskola askotan egiten dira psikomotrizitate-saioak. Beraz, nahi izatera behintzat, sekulako aukera dugu eskoletan lehen mailako prebentzioan esku hartzeko.

Txingudi ikastolaren kasuak, berriaz, argi erakusten digu, prebentzio lanean egiazki sinesten bada, asko egin litekeela zeharkako prebentzioan ere. Txingudikoek baliabide pedagogiko gisa ulertzen dituzte laguntza-saioak, haurren aniztasunari erantzuteko baliabide gisa. Esan liteke Haur Hezkuntzan pedagogoterapeuta lana egiteko modu bat dela, baina, betiere, haurrek berezkoa duten horretan, jolas espontaneoan, oinarrituta.

Bukatzeko, eskerrak ematea baino ez zaigu gelditzen. Eskerrak Txingudi ikastolari, euren esperientziaren berri emateko aukera eskaini izanagatik; eskerrak Bergarako Luzaro Psikomotrizitate Eskolari ere, artikulu honi leku egin izanagatik; eta, bukatzeko, eskerrak haurrei, eurei hazten lagundu nahiak geuri ere hazteko aukera paregabea ematen digulako. Bejondeiela!!!

GALDEIDAZU

ZEIN FUNTZIO BETETZEN DU PSIKOMOTRIZITATEKO SAIOAK ESKOLAN?

Aucouturierren Psikomotrizitate Praktikako (APP) Saioa Haur Hezkuntzan, hezkuntzabaliabide garrantzitsua da.

Lehenengo, artikulu honetan berariaz APPz hitz egingo dudala nabarmendu nahi dut, eta ez psikomotrizitateari buruzko ikuspegi orokor batez. Gure inguruan, Haur Hezkuntzako ikuspegi pedagogikoak berrikusten eta berri-tzen ari dira mugimendu ugari, eta gogoeta bat zabaldu da mugimendu horietan espazioen, denboren, estrategien eta hezkuntza-jardueren egituraketaz, haurren (0-6 urte) garapen osasungarri eta globalari laguntzeko interesgarria izan daitekeena. Indar handia hartu du gaur egun motrizitatearen garapenari edo mugimenduari eta haurtzaroan duen garapenari buruzko eztabaidak. Aski ezagunak dira, zentzu horretan, Emmi Piklerren ekarpenak eta “Loczyko ikuspegi pedagogiko” izenda dezakeguna.

APPren ikuspuntutik, interes berezia dugu honako berrespen honetan: haur bakoitzak, zaintzen duten helduekin dituen kalitatezko harremanetatik abiatuta, mugimenduaren etapak eraiki ditzake modu autonomo batean, zutitu eta oinez, korrika, jauzika... hasi bitarteko posturak eta horiei dagozkien mugimenduak bereganatuz. Hortaz, ez dago haur bati mugitzen irakatsi beharrik, eta ez dugu zertan



ALVARO BEÑARAN Psikomotrizista



mugitzera behartu. Berrespen horrek “mugimendu libreaz” hitz eginarazi digu, lehen haurtzaroan haur bakoitzak ahalik eta oztopo gutxienekin “aske mugitzeko” aukerak izan beharraz, ildo horretatik, espazioan segurtasunez eta autonomiaz bere gorputzarekin esperimendatzeko ahalik eta aukera gehien izan ditzan.

Haur bakoitzak ez dauka zertan egon ariketa batzuen zain edo “mugimendu-eskolen” zain, bere beharrak eta adierazteko eta gorputza eta inguru esploratzeko ahalmenak garatzeko. “Aske mugitzeko” aukera izan behar luke. Badirudi horrek zalantzan jartzen duela “taldeko psikomotrizitateko hezkuntza-saioak” egiteko komenigarritasuna, eta halaxe egin du hezkuntza-munduko sektore batek. Beharrezkoa ez den zerbait dela ematen du, artifiziala, funtsezkoena haur bakoitzak nahi eta behar duen guztietan mugitzeko eta bat-batean eta bere kabuz esperimendatzeko aukera izatea baita.

Oinarrizko oker kontzeptual batean du sorburua, ordea, saio horiek zalantzan jartzeak: APP saio batean landuko dena mugimendua dela jotzen da, eta APPko planteamenduen eza-gutza falta handia jartzen du agerian horrek.

Gainera, “haziera naturalaren inguruko mitoak” izenez bataiatu ditudan

usteetako bat adierazten du: haurrak bulkada biologiko batzuk ditu bere barruan, eta aski da horiei “modu natural” batean garatzeko aukera ematea, “gai” izango den pertsona “zoriontsu” bat garatzeko.

Badirudi helduak hezkuntzaren esparruan modu “artifizial” batean esku hartzeak eragotzi egiten duela “garapen natural” hori, “ona” den hori. Ikuspegi horretatik, haurrak taldeko psikomotrizitate-saio batera “joanaraztea” naturaren aurkako esku-hartze inbaditzaile bat litzateke.

Hona iritsita, beste gogoeta bat erantsi nahi nuke: Haur Hezkuntzari buruzko debateetan, ohitura hartu behar litzateke aipatzen den garapenaldi bakoitza ahalik eta gehien zehazteko: bizitzako lehen hilabeteak, 1-2 urte, 2-3. etab. Haurrak zaintzen dituzten helduen jarrerak eta hezkuntzabaliabideek bilakatu beharra baitute, haurren bizitzako eta garapeneko une bakoitzeko gaitasun eta beharren arabera.

Gehiegixotan irakurtzen edo entzuten ditugu horrelakoak: “ez dira haurrak frustratu behar”, “haurren zera hori errespetatu egin behar da”... Baina gauza bera esan dezakegu hila-bete batzuk dituen haurren jarrerez eta hezkuntza-ekintzez eta bost urte dituen beste batenaz?

Hel diezaiogun beste hari bati, baliogarria baitzaigu artikulu honen xederako: gaur egungo gizarteak baditu zenbait ezaugarri, neurri handian eskolaren hezkuntza-zeregina konplexuago egiten dutenak (ez naiz ari okerragoa edo hobea denaz, konplexutasunaz baizik; alde egin beharra dago “on eta txar” eskemetatik, gaia aztertu eta erantzun konplexuak aurkitzeko).

Ez dago “hezkuntza onik”, “hezkuntza perfekturik”, edo “one-nik”. Horregatik, gure hezkuntzaplanteamenduetan elkarrengandik nahiko gertu sentitzen garenon artean ere, alde eta ñabardura ugari daude... Ez dago hezkuntza-eredu “eztabai-daezin” bat ekarriko digun egia zientifikorik. Ez da komeni “hezkuntza-uniformetasuna”.

Baina horrek ez du ekarri behar hezkuntza-jarrera hauskorra eta desegonkorra. Hezkuntza-elkarterako

(neska-mutilak, hezitzaileak, familiak, erakundeak, gizartea) aski segurua izango den esparru bat osatzea ahalbidetuko duten erabaki argiak (eta, neurri horretan, malguak baina ez kaotikoak) hartzeko ardura dugu.

Gure gizarteak begi-bistako egirik badu, ANIZTASUNA eta KONPLEXUTASUNA ditu ardatz egia horrek, eta INTERAKZIOA da esku hartzen duten faktore guztien arteko dinamika. Hortaz, hezkuntzak kontuan hartu behar litzuzke alderdi horiek.

Baina aniztasuna eta konplexutasuna ez dagozkio gizarte-errealitateari soilik, pertsonari ere badagozkio, “sistema bizidun”-a den neurrian, bai eta burmuin- eta neurologia-garapenari ere (oso modan dago): gizakiak adierazitako funtzio edo ahalmen bakoitzerako leku jakin bat aurkitzen tematuta zebiltzan ikertzaileak (linealtasunaren bilaketa eta “kausa-efektu” erlazio zuzena), baina aniztasun handiko errealitate konplexu interaktibo batekin egin dute topo.

Gainera, aurretik finkatuta ezertxo ere ez dagoela egiaztatu ahal izan da. Genetika aldatu egiten da. Aldatu egiten da biologia. Genetikoa edo biologikoa dena adierazteko modua aldatu egiten da, ingurumenarekiko interakzioaren arabera. Badaude faktore baldintzatzaileak, baina ez faktore erabakigarri absolutuak. Ez litzateke egokia hau esatea: “garrantzia duena erlazioa da”, edo “garrantzia duena genetika da”, edota “biologia da garrantzitsuena”. Faktore guztien arteko interakzioaren garrantziaz hitz egin beharko litzateke, eta, beraz, oreken dinamika zirkular, ekologiko eta ez-lineal batez.

Adierazitako hori guztia abiapuntu hartuta, goazen APPren zentzua bere testuinguruan kokatzera eta eskola-eremuari ekar diezaiokeena aztertzerara.

Bada funtsezkoa den zerbait: haurren bizitzan, GUZTIA ez da eskola. Batzuetan, badirudi haurrak eskolan bizi behar lukeela GUZTIA, esperimintatzeko, ikasteko, eraginak jasotzeko beste tokirik ez balego bezala. Ez dezagun ahaztu funtsezkoena gertuko eta ohiko familia-esparruan xurgatzen dela. Eta, ezta ere, ez dezagun ahantz, haurren inguru so-

Bada maiz ahaztu ohi den beste zerbait ere: sinbolikoa denak, jolasak, duen indar eraldatzailea; baina ez edozein jolasek, haurren ekimenetik abiatzen denak baizik.

zioekonomiko eta ideologikoak duen eragina.

Errealitate oso horren barnean, APP ez da eskola-bizitzako une bat besterik. Ez da DENA, ez du izateko asmorik ere, ez da haurrak behar dituen esperientzia guztiak topatuko dituen toki bat.

Orduan, zer ekarpen egiten diote APP saioek haurrari?

Lehenengo eta behin, oinarriko zerbait: emozioei, sentimenduei eta pentsamenduei dagokienez eta harreman-esperientzietatik abiatuta (bere buruarekin, besteekin, espazioarekin, materialekin...), bere buruaren eza-gutzan **prestatu den heldu batekiko harremana**; harremanetatik bere barnean sortzen diren sentimendu, sentipen eta pentsamenduak ezagutzen dituen heldu batekin jarriko da harremanetan, neurri batean, horri esker. Heldu horrek lan egin du enpatia, prestutasuna, deszentrazioa duen pertsona/profesionala izateko, harrera-gaitasunak izateko, sostengua, euspena, sendotasuna, argitasuna eta ulermena emateko.

Hezkuntzaren dimentsio subjektiboa egokiro ezagutu, onartu, eduki eta bideratzeko prestatutako profesionala dela adierazten du horrek. Hezkuntzaren esparruan haurrekin biltze horri beren ezaugarri pertsonalak erantsiko dizkio profesional horrek, nahi ez duen efekturik, kontrolatu gabekorik, ez eragiteko; bere gaitasun eta mugez, gatazka subjektiboez, jabetuko da, bere lanean aurrez aurre dituen haurrekiko eguneroko harremanean modu masibo batean proiektu baitaitezke.

Ez dugu ahaztu behar Haur Hezkuntzan profesionala ez dutela “babesten” eskola-edukiek, ikasgaiek; besoko

GALDEIDAZU: PSIKOMOTRIZITATE-SAIOAK ESKOLAN

umeen eta haur txikien prestakuntza-
ren esparruan lan egiten du, eta, ikus-
pegi horretatik, harremanean alderdi
subjektiboek (emozioek, afektuek,
sentimenduek) berebiziko garrantzia
dute haurrek bizi dituzten esperien-
tzietan.

Horrekin batera, bada maiz ahaztu
ohi den zerbait, edo jaramonik egiten
ez zaiona agian: sinbolikoa denak,
jolasak, duen indar eraldatzailea;
baina ez edozein jolasek, haurren
ekimenetik abiatzen denak baizik;
berorren subjektu sentitzen delako eta,
aldi berean, zentzua eta balioa
ematen dion beste norbaitek ezagu-
tzen duelako, zentzu osoa hartzen du
bere baitan; horrez gain, jolasten ari
diren beste batzuekin komunikatzeko
eta elkartzeko balio dio.

Ez dugu ahaztu behar haurraren
bizitzak, eta haren garapenak zentzua
har dezan ezinbestekoa dela zaintzen
duten eta haren iraupena babesten
duten helduek bizitzan txertatu izana.
Haurrari zentzua eta nortasuna ematen
dioten helduek ari gara, haurraren is-
piluez; barne-erakuntzara jo dezakete
horrela, “norberaren kontzientzia”
hartzera, pertsonari “gizatasuna” ematen
dion dimentsio sinbolikora.

Bil ditzagun, beraz, psikomotrizita-
teko saioari zentzua emango dioten
zenbait elementu:

- Haurraren ekimenetik sortutako ekintza eta jolasa (zaintzen duen helduarekiko harremanean giza-tiartu ondoren).
- Ekintza edo jolas horri zentzua ematen dion heldu baten presentziak eta ispilu-begirada.
- Dimentsio sinbolikoa (heldu baten kalitatezko presentzia eta begiradak emandako eta ahalbidetutako euskarriaren bidez), eta errealitatea eraldatzeko horrek duen indarra.
- Errepresiotik eta zeregin kaotikotik urrun eraikitzen den esparru egituratu batek ahalbidetutako dimentsio sinbolikoa, **SEGURTASUN-LEGEAREN** espazio bat eraikitzetik abiatuta aukera-espazio bat irekiko duena.
- **“Min hartu gabe eta min eman gabe jolas egin daitezkeen”** toki bat. Bulkada



biologikoak “gizartiaritzeko”
gaitasuna duen elementu gisa
frustrazioa txertatuz (“bai, baina
ez; ez, baina bai”), sormenaren
bideak irekiz eta komunikazio
eta pentsamenduaren garapena
bultzatuz. “Gizadiaren bereizga-
rri” diren ahalmen sinbolikoen
garapena ahalbidetuz.

- “Frustrazioaren legea”: ez da guztia nahi bezala posible; bazu-
tuetan, zain egon behar izaten
da; zenbaitetan, espazioan, den-
boran, erabiliko den materialean
eta erabiltzeko moduan pentsatu
behar da: umetxoaren bulkadak
eta nahita egindakoak ez diren
ekintzak “ekintza zentzuduna”
bihurtu arte aldatzeko auke-
ra emango duten espazio eta
denborak eraikitzea, errealitatea
kontuan hartuta eta norberaren
desiren eta errealitatearen arteko
orekak bilatuz, elkar aldatzeko
dinamika batean.
- Heldutasunerako ibilbide bat,
haurraren ekintzak “zentzua”
hartzeko norabidean jarriko
dituena, “gizakiaren” alderdien
integrazioa bizitzeko aukera
izan dadin: sentipenak, afektuak,

emozioak, sentimenduak, ideiak,
irudiak, pentsamenduak. Hau
da, haurrei beren ekintza-jolasak
baliagarri gertatu behar zaizkie
beren burua eta gainerakoa
eraikitzeko, bizi izandakoaren
inguruko dinamika gogoetatsu
eta integratzaile baten bidez.
“Egiteko plazeretik” “pentsa-
tzeko plazerera”, Winnicottek
esango lukeenez, integrazio-
sentimendu psikosomatikoaren
bidez “bizirik” eta “benetako”-a
sentitzen den pertsona batengan.

Laburpen txiki eta ez oso honetatik
abiatuta, zehazten has gaitzke, adina
oinarri hartuta, zein izan daitezkeen
APP eskolako hezkuntza-proiektuan
txertatzeko egitura praktikoa, labur-
labur:

- **0-1 aldian**, hitzezkoa eta sin-
bolikoa den aldiaren aurretiko
garai batean gaude; oro har,
altxatu eta oinez ibiltzen hasteko
gaitasuna ez dute eskura izango
oraindik normalean. Gure
planteamenduetarako berariazko
toki bat (psikomotrizitate-gela)
proposatu beharrik ez izateko
aukera emango digu horrek.

Neska-mutilek beren eguneroko eskola-bizitza garatzen duten tokietan gune egokiak prestatuz ekin dakioke jarduerari, espazio horretan bere gorputza sendotasun handiagoz mugitzeko aukera emango dioten elementuak prestatuz (arrapalak, lastairak, blokeak...). Berriro ere, beharrezkoa litzateke prestakuntza egokia duen heldu psikomotrizista baten presentzia, umetxoek ekintza barnean hartu eta berorri eusteko eta, horrela, beren buruari eta inguruera irakitzeari zentzua emateko.

- **1-2 aldian**, hitzezkoa eta sinbolikoa den esparru horretan sartuko dira, zutikako jarretatik abiatuta lekuz aldatzeko aukera izateaz gain. Toki eta denbora jakin eta espezifiko batzuetan haurrari psikomotrizitateko saioaren egitura eskaintzeko aukera ematen du horrek guztiak. Garrantzi handia du haurra jada desberdintasunen munduan sartu dela jabetzeak, ama ez den norbait den kontzientzia hartuko baitu, eta “ezaguna” eta “arrotza” denaren arteko aldea ezarriko baitu. “Atxikimendu/banantze” dinamika bat adierazten du horrek, denboren eta espazioaren egiturarekin oso lotuta dagoena. Dena den, umetxoak oraindik bere baliabide sinbolikoetan aski indar ez duenez eta denboraren eta espazioaren arteko behar besteko banaketa ere ez duenez, saio global bat proposatzen da, denbora-tarte bakar batekin eta espazio irekiekin. Egituratutako planteamendua, bi unetan zehaztua, non aretoan gertatzen denaren inguruko dimentsio sinbolikoa gauzatzen hasiko den.
- **2-3 aldian**, aurreko egitura horri berari eutsiko zaio, baina, pixkana, dimentsio espazial espezifikoagoak ireki ahal izango dira, materialaren erabilerarekin lotuta (espazio egokietan material mota batzuk erabiltzeko proposamena, minik ez hartzeko arrazoi logikoak oinarri hartuta, adibidez, edota heldze-ibilbidea-

ren etorkizuneko egitura izango den horretarako bidea irekitzen joateko). Hitzeko hizkuntza-aren eta gaitasun sinbolikoen pixkanakako agerpena kontuan hartuko da oso, eta arreta berezia jarriko zaio atxikimendu/banantze dinamika dimentsio garrantzitsuari ere, giza garapeneraren une honetan oinarri-oinarriko kontuak diren neurrian. Bat-bateko ekintza-jolas hori eta helduaren “kalitatezko presentzia” oinarri hartuta beti.

- **3-6 aldian** (lau urtetik aurrera planteatzen dute zenbaitzuek, eta interesgarria da hori APPn: ez dago saioak planteatzeko modu zurrun edo bakar bat, nahiz eta badauden printzipio komun batzuk), hitza eta gaitasun sinbolikoak indarra hartzen joango dira, bai eta mugimendu-gaitasunak eta parekoekiko komunikazio eta harremanak ere (nabarmendu beharra dago askotan ahaztuta uzten dugun zerbait: 2-3 urtera arte, helduarekiko harremana funtsezkoa da gizabanakoaren eraikuntzan, parekoekiko interazioak egon badauden arren).

Horregatik, dimentsio sinboliko horrekin koherenteak diren espazio eta denbora-tarteekin saioen egitura bat ezartzea proposatzen da, haurraren ondoan egonez “guztiahaltasun garai” horretatik urruntzean (bizitzako lehen urtetik aurrera gertatzen da batik bat), gaitasunen eta mugen errealitateara jotzeko.

Heltze-ibilbide bat izango da, eta, saio hasierako topaketan eta amaieran esparruan, aukera izango du beti haurrak ibilbide integratzaile bat egiteko, hasi mugimendutik eta sentipenetatik eta pentsamendu eta hitzetara iritsi arte, hainbat esperientzia sinbolikoren bidez.

Ikusi ahal izan dugunez, “berdintasun” mundutik “desberdintasun” mundurako ibilbide bat egingo dugu. Guztiahaltasunetik gaitasunen eta mugen errealitateara. Atxikimendutik bereizketara.

Artikulu honek ez du helburu 6 urtetik harago jotzea, baina gogoratu inte-

resgarria litzatekeela 7/8 urtetik aurrea proposatutako oinarriko egiturari eustea, haurrei beren heldutasun eta garapeneraren arabera espazio-denbora hori aldatzen joateko aukera emanez. Lehen Hezkuntzako lehen bi ikasturteez ari gara.

Hainbat ondorio

Haurrei mugimendu-ekintza, jolasa eta pentsamendua integratzeko baliabide bat eskaintzea litzateke kontua, helduarekiko kalitatezko harremanen bidez eta parekoekiko komunikaziorako bideak irekiz, segurtasun psikoafektiboko esparru batean, betiere, dimentsio hori ez baita gauzatzen haurrak “jolas libreko” bizipenetan bizi duen errealitateko egoeretan “heldu baten ispilu-begiradarik gabe”.

Parekoen arteko haurren ekintzak, jolas libreak, errepikatze joera har dezake, zentzua, euspina eta euskarria ematen dizkion helduaren begiradarik gabe (beldur den haurrak bere beldurrarekin jarraitzen du...). Helduarekin interakzio horretan, haurrak bere sentipenak, afektuak, sentimenduak, pentsamenduak alda ditzake, eta, horrela, eraldatzeko eta heldzeko prozesu batean sar daiteke.

Izan dezagun gogoan haur txikiaren oinarriko ongizateak nahiz ezinegona haien esperientziekin lotuta daukela, helduekiko harremana hartuta abiapuntutat, eta ez parekoekikoa. Uneko helduekiko harreman-egoeretatik abiatuta alda dezake umeak eta alda daiteke bera. Eta, orduan, errealitatea aldatzeko dinamika horrekin jarrai dezake “heldurik gabe” (nahiz eta, egiaz, inoiz ez den “heldurik gabe” izango).

Eraldatzeko aukera horretara jotzeko espazio-denbora pribilegiatua da psikomotrizitateko saioa, batez ere APPko psikomotrizistak, prestakuntza pertsonal eta profesional handia duenak, eskain dezakeen harremanaren kalitateagatik.

Bizipen eta harreman esanguratsu horietatik abiatuta garatzen dira autonomia eta norberaren kontzientzia, harremanen esparruan beti (hala zioen Winnicottek: “Haurtxoa ez da existitzen”; gizakiak bestea gabe ez duela irauten esan nahi zuen, ez dela posible).



Bundes Minister
Lernaktivitäten - Sportaktivitäten

Mitgliedsbeitrag



Mitgliedsbeitrag Burdinele mortson!


Einmalige Mitgliedsbeitrag für die Teilnahme an den Aktivitäten der Burdinele mortson!



1. Mitgliedsbeitrag
Einmaliger Mitgliedsbeitrag für die Teilnahme an den Aktivitäten der Burdinele mortson! Der Betrag wird für die Teilnahme an den Aktivitäten der Burdinele mortson! verwendet.

2. Mitgliedsbeitrag
Einmaliger Mitgliedsbeitrag für die Teilnahme an den Aktivitäten der Burdinele mortson! Der Betrag wird für die Teilnahme an den Aktivitäten der Burdinele mortson! verwendet.

3. Mitgliedsbeitrag
Einmaliger Mitgliedsbeitrag für die Teilnahme an den Aktivitäten der Burdinele mortson! Der Betrag wird für die Teilnahme an den Aktivitäten der Burdinele mortson! verwendet.




Einmaliger Mitgliedsbeitrag für die Teilnahme an den Aktivitäten der Burdinele mortson! Der Betrag wird für die Teilnahme an den Aktivitäten der Burdinele mortson! verwendet.

Einmaliger Mitgliedsbeitrag für die Teilnahme an den Aktivitäten der Burdinele mortson! Der Betrag wird für die Teilnahme an den Aktivitäten der Burdinele mortson! verwendet.

Einmaliger Mitgliedsbeitrag für die Teilnahme an den Aktivitäten der Burdinele mortson! Der Betrag wird für die Teilnahme an den Aktivitäten der Burdinele mortson! verwendet.



ARGITALPENAK



GEHIAGO GARENEAN
Olalla González / Marc Taeger

PAMIELA KALANDRAKA

Egun batean, untxi txikiak amari begiratu zion. “Ama, zer daukazu sabelean? Ume bat izango duzula ematen du!”. Eta amak: “Bada, bai, laster bat gehiago izango gara familian”. Anaia edo arreba berriaren jaiotzaren bueltan egituratzen da liburu hau. Samurtasuna, elkartasuna, poza... dira istorioaren inguruan pizten diren sentimenduak.



AITAK ESAN DIT
Astrid Desbordes / Pauline Martin

TTARTTALO

Zeruan hegan dabiltzan enarei begiradaude Xuban eta bere aita... “Lurraren bestaldeko muturrera doaz”, azaldu dio aitak. “Handitzen naizenean horren urrun joan ahal izango naiz ni ere”, galdetu dio Xubanek. “Bizitzaren bidaia” haurrengan pizten dituen beldurrei aurre egiten laguntzeko kontakizun poetikoa da liburu hau.



OIHARTZUN ISILAK
Ruben Ruiz / Maite Mutuberria

EREIN

Amak azaldu zidan nire gela, nire betiko gela, moldatu nahi zuela. Hamaika poltsa prestatu zizkidan nire gauzekin. Era askotako gauzak zeuden, baina, haien artean, aspaldiko musika kasetekin batera, beste zinta bat aurkitu nuen: 1985-1986 ikasturtea. Oso hunkigarria zen guztia. Zer gordeko zuen kasete horrek?



OTTOLINE ETA AZERI MOREA
Chris Riddell

IBAIZABAL

Ottoline bildumaren laugarren titulua da. Oraingoan, Ottolinek pertsonaia burutsua eta trebatua ezagutu du, Azeri Morea, eta berari eta Mr. Munroeri zin egiten die gauz hiri safari bat egingo dutela. Bere lagun berriarentzako sari gisa, Ottolinek bere etxean egingo duen jai batera gonbidatzen du; bertan, lagunduko dio ohartzen bere idazkari adeitsua bere bizitzako maitasuna dela.



JULENE BAKARRIK DAGO IKASGELAN
Nathalie Dargent / Yannick Thome

TTARTTALO

Liburuxka hau *Banaezinak* izeneko bildumaren lehen zenbakia da. Banaezinak Jon, Julene, Lukas, Lea, Peru eta Aminatak osatutako lagun kuadrila da. Aurten Julene bakar-bakarrik dago ikasgelan. Beste talde batean tokatu zaio. Berak ongi prestatuak zeukan dena: zorroa, arropa, kutxatila... baina hori ez zuen espero. Lortuko al du bizirautea Banaezinetatik aparte?



EZ DA KAXA BAT
Antoinette Portis

PAMIELA KALANDRAKA

Ipuin honetako protagonistak kaxa bat gure irudimenak uzten digun guztia izan ahal dela erakusten digu: mendi bat, espazioko suziri bat, etxe bat... Bere haurtzaroko bizipenak birsortuz, egileak aspaldiko baliabide urrien erabilpenaren aldeko apustua egiten du: jolasteko ia bitartekorik gabe, gauzarik xumeena jostailurik ederrena eta diberdigarriena bilakatu daiteke.

PROPOSAMENA

URDAZUBIKO LEIZEAK

Ur tanta batek egin dezakeena

Goi Paleolitoko Nafarroako aztarnategi garrantzitsuena da Urdazubikoa.



Tantaz tanta, egunik egun, urterik urte, ikaragarriko estalagmitak eta estalaktitak osatu dira egonarri handiz milaka eta milaka urtetan Urdazubiko leizeetan, Urtxune erreka higaraz. Naturaren handitasuna sentitzen du Urdazubiko leizeetan barneratzen denak, ur tanta batek egin dezakeena zeinen miragarria den. Begiekin ez ezik, belarriekin ere ikusteko kobazuloa da Ikaburukoa.

Haatik, ez dira estalagmitak, estalaktitak eta bestelako formazioak leizeek gordetzen dituzten altxor bakarrak. Kondairak eta historia nahasten dira Ikaburuko lurpeko mundu miresgarri honetan. Kondairak dioenez, laminak bizi ziren kobazuloan, eta haien ahotsak entzun omen daitezke leizeetan barrena doan Urtxune erreka oihartzunean. Sorginen eta inkisizioaren oihartzunak ere entzungo ditu belarri fina duenak.

Natura, mitologia eta historia eskutik helduta doaz lurpeko munduan.

Kondairak kondaira, historia gailentzen da estalagmiten eta estalaktiten artean. 13.000-14.000 urte ditu Ikaburuko leizeak, eta, XIX. mende hasieran han aurkituriko silex-hondakinek adierazten dutenez, Urdazubiko leizeetan bizi ziren historiaurreko gizakiak. Gerora, Independentzia Gerran eta karlistaldietan, borrokari eta iheslariantzat babesleku izan



ziren lurpeko aterpeok, bai eta Baztango kontrabandisten gordeleku ere, atzo arte. Bisita bakarrean horretaz guztiaz jabetzeko parada eskaintzen du Urdazubik.

Madeleine aldiko irudiak eta aztarnak

Ikaburukoa ez da Nafarroako Pirinioen magaleko kobazulo bakarra. Gaur egun ikusgai ez badaude ere, beste bi leize garrantzitsu daude Urdazubin: Berrobietakoa eta Alkerdikoa. Berrobietako kobazuloan, Goi Madeleine aldiko gizakiaren hainbat aztarna aurkitu zituzten, besteak beste, bi hortz lerroko arpoiak inskripzio ulergaitzekin, hainbat zizel eta hareharrizko xafla bat. Eta Alkerdikoa kobak gordetzen du altxorrik handiena, Paleolito eta Mesolito aroetako biztanleek marrazturiko hiru animalia ikus baitaitezke pasabidearen barrenean: bisonte bat, orkatz bat

eta zaldi baten itxurako hirugarren animalia bat daude grabatuta estalagimita-kolada batean. Berrobietako Alkerdi 1996an itxi zituzten, azken indusketak egin ostean.

Ikaburuko leizea da bisitatu daitekeen bakarra. Bisita gidatuak dira. 40 minutuko bisitan, argi eta soinu efektuen bitartez, naturaren edertasuna, indarra, jakinduria eta handitasuna beren azalean bizitzeko aukera dute bisitariak Urdazubiko leizeetan. Izotz-kandelen artetik ibiliz, kondaira mitologikoak eta pasarte historikoak uztartzen ditu Ikaburuko bisitak.

1808an aurkitu zuen Ikaburuko leizea artzain batek, eta 1965an zabaldu zituen ateak bisitariarentzat. 1933an, Norbert Casteret espeleologo frantziar entzutetsuak Berrobietako “harkaizpeko babes ederra” aurkitu zuen, eta “grabatudun leizea” Alkerdin.



URDAZUBIKO LEIZEAK

www.cuevasurdax.com
948 599 2411
info@cuevasurdax.com

- Kobazuloa bisitatzeko aukera bakarra bisita gidatua da.
- 40 minutuko iraupena du bisitak.
- Argiztapena mugatuta dago.
- Ezin da argazkirik atera flasharekin.
- Debekatuta dago kobazulo barruan jatea.
- Ahalik eta gauza gutxien sartu behar da leizean.
- 14-16 gradu bitarteko tenperatura dago beti leize barruan.

Zer ikus daiteke Urdazubin?

- Axularren jaiotetxea.** Urdazubiko Axular etxean jaio zen Pedro Agerre “Axular”, Gero klasikoaren egilea, eta hantxe dago egun etxea ikusgai.
- Axularren etxeaz gain, berezia eta esanguratsua da Urdazubiko **arkitek-tura**.
- Museoa:** monasterioa erromesen ospitale izan zen, eta, IX. mendetik gaur arte, historia luzea bizi izan du.
- Ibilaldiak:** Urdazubi, Sara eta Zugarramurdi lotzen dituzten ibilaldi markatuak egin daitezke.
- X. eta XI. mendeetan, ingurune horietan kokatu ziren fraideek hainbat **errot**a egin zituzten, eta martxan ikus daiteke Urdazubikoa.

ATZEKO ATETIK



IÑAKI MARTIARENA "MATTIN"

KOMIKIGILEA



Haurdunen garapeneraren
antolatzaileak



Haur Hezkuntzako jardunaldiak Urtarrilaren 27an BILBOAN eta 28an DONOSTIAN

Helburuak: Haur Hezkuntzako hezitzaileentzako jardunaldiak antolatzen ditu HH-FEEN elkarteak. "Haurdunen garapenera antolatuta" jardunaldiak eta

garapenera antolatutako jardunaldiak antolatzen dituzten jardunaldiak antolatzen ditu. **www.hhfeen.org**

Garapenera antolatutako jardunaldiak antolatzen ditu: **Elkar BILBO** eta **Elkar DONOSTIA**
Haurdunen garapenera antolatutako jardunaldiak antolatzen ditu: **www.hhfeen.org**

Informazio gehiago emateko: www.hikhasi.org (lekuak)